



Gehigarri berezia
Ezkontza → 25-39

ARANTZA → 16
Mendi lasterketarako
izen-ematea zabalik

DONEZTEBE → 21
Autodefentsa eta musika-
terapia ikastaroa martxoan

LEKAROZ → 47
Bertako Haziaren Eguna
martxoaren 11n

KIROLA → 55
Igantzi, BRT eta
Basaburua herri kiroletan

AHALDUNTZE TAILERRA LEITZAN



ERREPORTAJEA → 4-5

Norbere burua zaintzen ikasiz

60 urtetik gora dituzten Leitzako hamar emakumezko parte hartu dute Berdintasun Batzordeak antolatutako ahalduntze tailerrean. Beraien bizitza eta gaur egungo egoera genero ikuspegitik aztertu

nahi izan dute emakumeen ongizatea bultzatzeko asmoz. Leitzakoaren arrakasta ikusita, orain Goizuetan gauza bera egin nahi dute, Arano eta Goizuetako emakumeekin.

Ellande ALFARO ERRAMUZPE | Sarako pilotagilea «Ofizio honetan beti bada hobetzeko eta berritzeko zerbait baina biziki gustuko dut»

Pilota afizio eta ofizio. Halaxe du Ellande Alfarak. Gazteagoa zenean palmarek polita osatu zuen pilotan jokatuz eta gaur egun, pilotan jokatzeari utzi gabe, pilotak egitea du ofizio. Pilotak nola egiten diren ikasteagatik sartu zen mundu honetan, eta berak dioen bezala, «ohartu gabe» Eskutik enpresa sortzera ailegatu da. Lanbideak bere zailtasunak badituela onartu arren, kontent dago hartutako bidearekin.

ELKARRIZKETA → 3

KIROLA → 55

Labaiendarren arteko apustua

Batetik Pello eta Jon Telletxeak eta bestetik Jesus eta Miguel Angel Etxeberrriak aizkora apustua jokatuko dutemartxoaren 19an Donezteben, 12:00etan.

ZOKKETAK → 64



Erabili **Ttipi txartela**
pegatina hau ikusten duzun denda eta zerbitzuetan

probexutu aukera!

Atera
TTIPI TXARTELA
hemen

www.bertsozale.eus

FINALAURREKOAK



Nafarroako
Bertsolari
Txapelketa
2017

BERA
Kultur Etxea
Martxoak 18, 17:30




 **KULTURKARI**
DISEINU GRAFIKOA | PUBLIZITATEA
T. 948 635 458 | www.kulturkari.com

LOGOTIPOAK | KARTELAK | ARGITALPENAK | EGUTEGIAK | BOLETOAK
OROITGARRIAK | TXARTELAK | ORRI MUTUAK | POLTSAK
ESTILO-GIDALIBURUAK | LONAK | BINILOAK...



IREKITA
Herrian erosi, *elaskaraz* erosi



Eman **KOLOREA** mundu grisari!



Ttikitatik izan du pilotarekin lotura Saran bizi den Ellande Alfarak. Bere garaian, palmares polita ere osatu zuen pilotari gisa eta gaur egun, pilotan jokatzeari utzi gabe, pilotak

egiten ditu. 50 urtez pilotagile izan zen Jano Lukugararekin ikasi zuen ofizioa, eta berak dioenez, «ohartu gabe», duela bi urte Eskutik enpresa sortu zuen. Bi pilotagile dira enpre-

san, Ellande bera, eta Martine Huguenard Ursuegi, pilotagintzan 30 urteko esperientzia duen senperrarra. Pilota klase guztiak egiten dituzte, baita pilota zaharrak berri ere.

Ellande ALFARO ERRAMUZPE | Sarako pilotagilea

«Ohartu orduko galdea bazela eta jendea kontent zela ikusi nuen»

G. PIKABEA | SARA

Pilotari izatetik pilotagile izatera. Nola eman duzu urratsa?

Hogoi urtez ikasletoetan Gorputz Heziketako saioak ematen eta Xiba proiektuaren sustapenean aritu ondotik, lana uztea erabaki nuen. Saran berean zerbait egin nahi nuen, eta bertetik, eskulanetako gustua ere beti izan dut. Langabezian urte bat egon nintzen zer egiten ahal nuen gogoean eta lagun batek berriki erretiratu zen adineko pilotagile bat bazela erranzidan, Jano Lukugarai. 50 urtez pilotak egiten ari-tutakoa zen eta ez zuen jakitate horren transmisio-rik egin. Denbora banuela eta bederen ikasi nahi nuela pentsatu nuen, hemen atxiki eta behar bada norbaiti pasatzen ahal niola. Berekin kontaktuan jarri eta ofizioa ikasi nuen. Hori izan zen lehenbiziko urratsa. Pilotak egin eta pilota munduan nituen lagunei uzten nizkien. Entseatzen hasi eta ohartu orduko galdea baze-goela eta jendea kontent zegoela ikusi nuen eta poliki-poliki honetan sartu nintzen. Duela hiru urte hasi nintzen Lukugararekin, eta orain dela bi urte enpresa sortu nuen.

Nolakoa balantzea eginen zenuke?

Ona, alde guztietatik. Biziki gustuko dut ofizioa, baina oraino ikasten ari naiz, pilota klase anitz



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Ellande Alfaro pilotari larrua josten, Saran duen bere lantokian.

baitira. Lukugarai paleta-ko eta joko garbiko pilotak egiten zituen anitz, eta geroztik guk bertze anitz egiten ditugu. Esku huskakoan sartu gara trinkete, plaza eta ezker partako pilotak egiten, paxakako pilotak, xareko pilotak, bote luzekoak... Baina ofizio honetan beti bada hobetzeko eta berritzeko eta alde horretatik gogoarekin nago. Eta lan aldetik ere ongi. Iazko urtean lehenbiziko urteko bikoitza egin genuen, eta marka ona da. Duela urte bat eta erdi Martine ere hasizen eta aurtengo urtea ia zkoa baino hobeki hasi dugu. Jendea itzultzen da eta hori da gauza hoberena. Merkatuan berriak gara eta elkarte

MERKATUA

«Gehiena Ipar Euskal Herrian saltzen dugu, Ipar Euskal Herriko Pilota Batzordeko elkar-teen egiten dugu lan %90ean. Hego Euskal Herrian galde pitta bat badugu, eta Frantzian ere bai, baina gutiengo bat».

MATERIALA

«Ezpela Alpeetatik ekartzen dugu eta goma Tolosatik (Okzitania). Artilea Saratik hartzen dugu baina pilota guztientzat ez denez egokia, industria erosten dugu. Larrua, beriz, Lizarratik eta Logroñotik».

batzuk ez dira oraino gutara hurbilduak, baina poliki-poliki berri batzuk izaten dira.

Nola egiten dira pilotak?

Lehengaiak berdinak dira: ezpel egurrezko kanka bat, honen inguruan pilotari bizitasuna ematen dion goma edo elastika, gero pilotari gorputza ematen dion artilea eta finitzeko larrua. Baina pilota klase bakoitzak bere ezaugarriak ditu. Tresnekin erabiltzen diren pilota gehienak, adibidez, ezpel egurrezko kanikatik hasten dira, baina paxakakoek ez dute ez ezpelik eta ez gomarik ere; trappoa, artilea eta larrua dute. Horrez gain, joko garbiko pilotek, luzeko pilo-

tek edo paxakakoek bi larru dituzte eta luzeko pilotetan behi larrua erabiltzen da, eta gainera koetan ahuntzarena. Esku-huskakoek, beriz, ez dute ezpelik eta elastikarekin hasten dira zuzenean. Artilea bilduta, kotoina ere ematen zaio, eta kotoina atxikitzeko josi egiten da. Pilotaren arabera, larrua ere ez da berdin josten eta behin josia delarik, tresna batetik pasatzen dugu pilota, puntuak lehertu eta leuntzeko. Harrian punpaxuxena eta soinu ona baldin badu, azken urratsa pilota xuri utzi behar ez bada, tindatzea izan da. Baina dena arautua da. Federakuntzak pilota bakoitzak zenbat goma behar duen eta finitzeko izanen duen pisua markatzen du eta diametroa ere neurtua da. Pilotak ahal bezain berdinak izan daitezten entseatzen gara, eta gisa guztiz ez dira berdinak, eskuz ari garelako, beti ez delako berdin tinkatzen eta larrua ere ez delako beti berdina.

Pilotariakexijenteak dira?

Denetarik bada, baina batez ere esku huskako pilotariak bai. Normala da, eskuarekin jotzen denez, eskuetan ona behar du, eta ez du gogorregia izan behar. Gure zailtasuna neurri horren atzematea da, baina lanean gustura ari delarik gogortasunak ez du tratatzen.



ARGAZKIA: E. IRAOLA

Ezkerretik hasita, Marimi Odriozola, Valeri Olano, Milagros Erbiti, Tere Arraiago, Maxus Ariztimuño, Mari Jose Astiz, Lourdes Erbiti, Gloria Iruiria eta Begoña Olano (tailerrean parte hartu zuen Sagrario Eugi falta da argazkian).

GIZARTEA → 60 URTETIK GORAKO EMAKUMEENTZAKO AHALDUNTZE TAILERRA

Norbere burua zaindu eta ezagutzeko aukera

Hamar emakumek parte hartu dute Leitzako tailerrean eta orain Goizuetan egitekoa dute

Gure buruari galderak eginda lortzen dira erantzunak; baita taldean bildu eta solasean eta erdi-jolasean arituta ere. Leitzako hamar emakumek parte hartu dute Leitzaldeko Berdintasun Batzordeak

antolatutako ahalduntze tailerrean: 60 urtetik gorakoak guztiak, 82 ditu nagusienak. Tailerrean parte hartu duten lau emakumerekin eta ikastaroa eman duen berdintasun teknikariarekin bildu da TTIPI-TTAPA.

Eneritz IRAOLA

Zer ikusi, hura ikasi halaxe egin zutela aipatu dute Mari Jose Astiz, Lourdes Erbiti, Marimi Odriozola eta Milagros Erbitik: «txikitatik ikusi genuen zaintzailearen

figura emakumeari lotua zegoela, horrela helazi gintuzten eta ikasitako egin genuen guk». Hiru belaunaldiren zaintzaz arduratu dira «gurasoak lehenbizi, seme-alabak gero eta bilobak

orain». Eta noiz zaintzen dituzte beraien buruak?

Galdera horixe irakur zitekeen ahalduntze taileraren berri ematen zuten karteletan «60 urtetik gorako emakumengana iritsi nahi genu-

en. Aurretik egindako memoria tailerrean ikusi genuen bazegoela taldetxo polit bat. Hitz eginez, ariketa desberdinak eginez... beraien bizitza eta gaur egungo egoera genero ikuspegitik aztertu eta beraien ongizatea bultzatzen asmoa» azaldu du Josune Antxo Leitzaldeko Gizarte Zerbitzuetako Berdintasun teknikariak.


EMAKUMEEN BIZIPENETATIK ABIATUTA

Bi orduko lau saio egin dituzte, lehenbiziko hirurak Maite Blancekin, arlo teorikoa eta praktikoa landuz, eta azken saioan biodantza egin dute Tere Martinez psikologoarekin «ikasitako gorputzaren bidez adierazten ikasteko». Saio guztietan «emakumeak izan dira protagonistak eta be-

raien esperientziatik ateratu dituzte ondorio nagusiak». Besteak beste, emakume izatea zer den, zaintzailearen paperez, norberaren espazioa eskatzeko beharraz... aritu dira eta lau parte-hartzaileek diote «oso interesgarria» izan dela.

ARIKETA PRAKTIKOAK

Lehenbiziko saioa teorikoa izan bazen ere, batez ere ariketa praktikoen bidez landu dituzte gai desberdinak: «bi zerrenda egin genituen. Gizonezkoa izatea zer zen batetik eta emakumezkoa izatea zer zen bestetik. Emakumezkoa hitzaren azpian zerrenda amai-gabea osatu genuen». Errealitatea horixe izan dela diote «gaur egun, zorionez, ardurak gizonezko eta emakumezkoen artean gehixeago



banatzen dira. Baina oraindik badago zeregina. Nabari da urte askoan emakumea izan dela etxeko medikua, sukaldaria, garbitzaillea... etxeko zaintzaillea».

BARNERATUTAKO MOLDEAK APURTUZ

Beraiantzat zaintzaillea izatea ez dela «traba» izan azpimarratzen dute laurak «berriro ere nire ondoan beharra ikusiko banu berdin berdin eginen nuke. Barrutik ateratzen zaigun zerbait da. Ez litzaidake batere inportako nire denbora besteei eskaintza».



ABIAPUNTUA

«Oso barneratuak dituzten jokoera edo egoera batzuen atzean dagoena ikus dezaten bitartekoak ematea da helburua».

Maite Blanco
Psikologoa, berdintasun teknikaria eta Gestal terapian aditua.

tzea». Arazoa, ordea, «askotan besteei eskaintzen diezun denbora horretaz guztiaz ez zarela konturatzen da». Marimik hala dio: «momentu hartan, ez nintzen ohartzen niretzat ez nuela minutu bat ere. Hain naturala eta normala da... lotura hori ez duzanean, zaindu beharreko pertsona hori ez dagoenean, ohartzen zara zenbat ematen zenuen. Orduan diozu 'zenbat denbora dudan niretzako!'»

ALDAKETA

Euren bizitzako urterik hoberenak besteak zaintzen eman zituztela diote: «ez genuen hori nahi gure seme-alabentzat eta gizartea ere aldatzen ari zela ikusita, berdintasunean hezi genituen». Hori «oinarrikoa» dela azpimarratzen dute «guk askotan entzun genuen 'gizona ongi baldin badago dena ongi dago'».

Egoera aldatu da, ordea, eta emakumeak etxetik kanpo lanean hasi izanak aldaketa hori indartu duela uste dute «garai batean, ezkontutakoan emakumeak kanpoko lana uzten zuten eta hori egitean independentzia ekonomikoak galtzeaz gain, bestelako askatasuna ere galtzen zuten». Gainera, gizonetzkoen lanari «balio gehiago ematen zitzaion. Gurea obligazioa zen. Haiena lana zen, gurea ez. Eta hori aldatzeko sistema guztiak aldatu beharra zuen».

ZER LANDUA ORAINDIK

Beraien etxean, ardurak zertxobait banatzen hasi ziren «gizonezkoek bi esku dituzte arro-

pa zabaltzeko, bazkaria prestatzeko... fisiko ki gai izanez gero, go-go da behar dutena». Baina aitortzen dute «oraindik ere ardura gehiena gure gain dugu. Etxean gure adineko gizonetzko gehienek 'lagundu' egiten dute. 'Ohea egin dizut, erosketak egin dizkizut... ez, argi! Ez didazu ezer egin, ez baita nirea den zerbait». Orain gazteak dira «benetako berdintasuna» eskatzeko garaiz daudenak «gehienetan biak aritzen dira etxetik kanpo lanean eta ardurak banatuagoak dituzte. Behar duen bezala».

NORBERAREN ESPAZIOA

Norberaren espazioa nola eskatu lantzeko ariketak ere egin dituzte «binaka jarri behar zuten eta 'behar zaitut esaten zion' batek. Besteak hiru erantzun desberdin eman behar zizkion: 'ezin dut ez nago zuretzako; pozten naiz, orain bai ahal dut eta kostatzen zait baina saiatuko naiz'. Milagrosi izugarri kostatzen omen zaio ariketa hau egitea «barrenak mugitu zizkidan, gogorra da laguntza eskatzen dizunari ezetz esatea». Mari Josek ere hala dio: «laguntza eskatzea kostatzen zaidala ikusi dut eta laguntza eskatzen duenari ez ematea ere bai. Eta hori ariketa bat zenik... Konziente ez zaren gauza batzuez konturatzeke oso ongi heldu dira ariketa hauek».

Gizartean emandako aldaketekin «oso pozik» daudela aipatu dute eta baita beraien adineko emakumeen artean gertatu denarekin ere «ez dakit oraindik ere ez ote dugun inguruko ongizatea gurearen gainetik jartzen, baina orain behintzat, guretzat tarte bat hartzen dugu, bizitzaz gozatzeko».

LEITZAKO IKASTAROAN PARTE-HARTU DUTENAK

Mari Jose ASTIZ



«Hamahiru senide gara, hamar neska eta hiru mutil. Etxean emakumeek egin izan dugu dena beti. 'Gizonek nahikoa lan egiten dute kanpoan' esaten zen eta pentsaezina zen beraiek zerbaitetan laguntzea. Gainera, emakumeon lanari balioa kentzen zitzaion, gure eginbeharra zen eta kitto».

Lourdes ERBITI



«Ni etxera ezkondu nintzen. Garai batean hala egiten zen, horrela beti zegoelako gurasoak zaintzeaz arduratuko zen norbait. Gustura egin nuen zerbait izan zen. Nik denbora eskaini nien eta haiek asko eman zidaten bueltan. Zaintzaillea izatea ez da arazoa, horri ematen zaion balioa bai».

Marimi ODRIOZOLA



«Gogoan dut etxer aldatu eta auzo berri batera bizitzera joan ginenean senarrari pasa zitzaiona. Eskaratzat garbitzen ari zen batean bizilagun batek hala esan zion 'ba al dakizu zertan ari zaren? Argi egiten duzunarekin, bestela besteok ere hasi beharko dugu eta'. Kargu hartu zion etxeko lanak egiteagatik».

Milagros ERBITI



«Nik seme-alabak ditut eta biei berdina erakutsi diet. Gure gurasoek gurekin ez zuten hala egin, ezta eskolan ere. Gizonen lanak eta emakumeen lanak desberdinak ziren eta ongi banatuak zeuden. Askotan aditu genuen 'gizona kontentu baldin badago, dena ongi dago'. Hori zen gure betebeharra».



Nire txanda
Joseba URROTZ

Beltza

Honezkerok estreinatu izanen dute *El Guardián Invisible*, Dolores Redondo idazle famatuaren "Trilogia del Baztan"-eko liburu batean oinarritutako beldurrezko filma. Aste batzuk lehenxeago izan zen "hil-beltza", hura ere Baztan inguruan, nobela beltzaren inguruko astea. Hori horrela izanik, zer ote diote eguneroko baztandarrek belztasun artistiko honetaz? Iruñea beltza ere izan zen... Noiz eta, heriotza eta biolentzia inoiz baino gehiago baztertu nahi dugunean, intolerantziarekin intolerante izatea "politikoki zuzena" den honetan. Heriotza ahalik eta urrutien izan nahi dugunean: difuntoak etxean hil ezkerok, tanatoriora lehen bait lehen; bizia luzatu eta gozatu ahal den guziaz, eta abar. Istripu arriskuak deuseztu... Bizimodu xuriegia dugulako beltz pixko bat ikusi nahian ote? gure bizimodua ez al dugu ilun xamarra ordea? Pelikuletako gaizto eta maltzurrek honezkerok ez dute tabakorik erretzen, erretzeko madarikaziora eramanez gaituztelakoan? Hori bai, tiroka burua lehertu edo nabalaz lepoa moztu, nolana. Heriotza pelikula eta liburuetan sartu eta kanpotik erosoki begiratu nahi ote diogu? Nik umorezko literatura ona nahi diat!

Ezpala

Aitor AROTZENA

Odolaren mintzoa

Goizeko albistegian Sirian lehertutako ospitale bateko haurren gorpuzkinak ikusi ditu; arratsaldean, zezena pikatu eta banderillaz josi ondotik, ezpata sartu eta ahotik odola dariola hiltzen; arratseko teleseriean, dozena bat lagun hiltzen hiltzaileak utzitako pista odoltsuetan aztarra bila poliziak... baina deusek ez du inauterietan iraulka ibilitako azeri hilaren irudiak haina mindu.

Nabarmentzekoak



Aurelio GUTIERREZ
Enderlatsaren historia

Enderlatsak historian zehar izan duen garrantziari aritzeko (Santa Kruzapezak agindutako fusilatzeak batez ere) jardunaldietan hizlari eta bisitan gidari izan zen Berako historia zalea.



Mari Jose BARRIOLA
Katalunian saritua

Gutik ZUra proiektuko zuzendariak Katalunian Zinemaldian euskarazko dokumental onenari emandako Urrezko Txapela saria jaso zuen otsailaren 19an Bartzelonan.



Jesus Mari SEIN
Azken saskia dokumentala

Euskaltzaleen Topaguneak antolatzen duen Laburbira zinema zikloan ikusgai izanen da Iganztziko azken saskigilearen istoriaren berri ematen duen *Azken saskia* dokumentala.

Atzera begira → 2007-III-01 TTIPI-TTAPA 441 zk.



Joshe Viela Osasunako prestatzaile fisiko baztandarrarekin

Joshe Viela baztandarra zen Osasuna futbol taldeko prestatzaile fisikoa duela hamar urte. Bertze garaia ziren hiriburuko talde nagusirako, Vielak jartzen zituen helburuak horren lekuko: «Liga hamar lehenengoan artean akitzea gustatuko litzaidake baita UEFA eta Kopako finalera ailegatzea ere. Halere, ametsik gozoe-na Championerako sailkatzea da» zioen. Ordurako hamar urte zeramatzan Taxoaren, kategoria guztietan. «Hasieran amateur gisa hasi nintzen, eta poliki-poliki, urratsez urrats jokalarik profesionalarekin aritzeko aukera izan dut». Gustuko lana zuen Vielak, «aberatsa eta erakargarria delako», TTIPI-TTAPARI aipatu zionez.

ttipi-ttapa

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 635458 • Faxe (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredakzioa Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola Publizitatea Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre Berriemaileak Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Josebiñe Agirre, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2017ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	36€
Leitza	22€
Hego Euskal Herria	42€
Ipar Euskal Herria, Europa	75€
Amerika eta Australia	130€



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Bortzirietako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua



Kolaborazioak

Gertuko historia batzuk

Esteban IRUSTA MALLEA

Historia hitza erabiltzen dugunean, normalki, iraganeko gertaerak bakarrik ez, aspaldi gertatuak, gu jaio aurrekoak izaten ditugu buruan. Baina oraingoan, ez da horrela izango. Gutako askoren sasoikoak, oraintsu, gure garaian gertatutako batzuk gogoratuko ditut. Historia hauek jarraipena dutenez, ez dira inorentzat iraganako historia soilik, oraina ere badira, zoritxarrez. Bizitzan errepikapenak ia gai guztietan izaten dira, baina Euskal Herria eta Espainiako Gobernuen artekoak oso nabarmenak eta harrigarriak dira. Espainiako gerra zibilean eta ondoren gertatutako historia asko ixiltzen saiatzen dira, eta hor jarraitzen dute ezkutuan. Ezagutzen dugun ia historia bakarra irabazleek idatzitakoa da. Beste aldekoiei ahal duten oztopo guztiak jartzen zaizkie artxiboetan dagoen dokumentuak aztertzeko. Dena den beti zerbait jakitera heltzen gara, nahiz eta beste gertaera asko ezkutuan geldituko diren betirako. Hauen artean, gerra zibilean, galtzaileek jasan zituzten mendekuak daude. Askok herritik kanpora joan behar izan zuten, ez zitelako bertan lanik ematen. Emakume batzuk irain publikoak jasan zituzten, bere herritarren aurrean. Hemen, adibide garrantzitsu bezala, Ramon de la Sota-ren kasua aipatuko dut. Askorentzat oso ezaguna da enpresaburu ospetsua izan zelako, besteak beste, Sota-Aznar ontziola, Europako handienetarikoa sortu zuelako. Tartean Euskalduna ontziola Bilbon, Seguros La Polar, Saguntoko Labe Garaiak eta beste enpresa asko, aberastasun handia lortuz. Ingalaterrako erregeak, Lehen Mundu Gerran, gobernuari bere itsazontzien bidez emandako laguntzagatik, Sir izendatu zuen. Euskal Herriaren aldeko politikan murgildu zen hasieratik, Sabino Aranak bultzaturiko mugimunduekin bat eginez. Sabinorekin batera, *El Correo Vasco* egunkaria zuzendu eta finantziatu zuen Espainiako gobernuak, dekreto bidez, itxi arte. Sota EAJko diputadu izan zen Madrilan, eta politiko abertzale ezaguna zenez, faszisten zerrendan zegoen. Tartean hil egin zen, baina hil izanak, ez zuen zigorraz libratu, eta auzipeturik izan zen "traizioagatik", 100 miloi pezeta isuna jarritz. Francoren gobernu berriak Sota familiaren ondasun guztiak bahitu zituen: berrogei itsasontzi, enpresak... eta Ibaigane, bere azken etxebizitza. Jauregi eder hau, 40 urtez, Espainiako armadaren Gobernu Militarren egoitza izan zen Bizkaian. Frankistek ezarritako isuna familiak ordaidu ondoren, Espainiako gobernuak itzuli zion Sota familiari Ibaigane, 1979. urtean, eta osorik berritu ondoren, Bilboko Athletic Club futbol taldearen egoitza bertan kokatu zuten. Espainiako gobernuen errepresioa ez da mugatzen Francoren garaia. Lehenagotik eta ondoren, etengabe antzeko portaera politikoa izan du. Une batzutan gogorragoa izan baldin bada ere, euskaldun abertzale garenok menpekotasun hori ez dugu ongi eramaten. Adin gutxiko herria izango bagina bezala tratatzen gaituzte. Eta herri honek betidanik azaldu du helduen eta aurreratuen artean aurkitzen dela.

Manex eta kaskabeltz handia

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ

Eguberrietako egun batean, Manex bihurritxoa, baserrian barna zebilen goizerdi aldean. Oporretan zegoen eta bere zorionerako, momentu hartan ere, gogotik gustatzen zitzaion gauza bat gertatzen ari zen: elurra mara-mara ari zuen. Dagoeneko baziren zenbait egun, elurra egin eta egin ari zuela. Ordurako baserriko inguruek elur-geruza polita zuten. Gauetan izotz handiak egiten zituen eta kanpoko animaliak larritzen eta estutzen hasiak ziren, janaririk ez zutelako aurkitzen. Hori zela eta, Manex berehalaxe ohartu zen, etxe-ko hormen ondora hegazti asko hurbiltzen zirela babes eta jaki bila. Eta, jakina, Manex mutiko mugitu eta bizia izanik, berehalaxe bururatu zitzaion okerkeria bat egitea. Bazekien ganbaran, nonbait, beste traste askoren artean, kaiola zahar bat zegoela, eta hartaz gogoratu zen aida batean. Zer bururatuko eta txoriren bat harrapatzen saiatzea! Kaiola, zapata-kutxa baten tankerakoa zen. Manex segituan konturatu zen kaiolak bi ate txiki zituela, eta hortik berehala etorri zitzaion ideia interesgarri bat burura, alegia, kaiola leiho batean jarri, barruan ogi pixka bat daukala. Kanpo aldera ematen zuen atetxoa itxita utzi zuen, eta, barru aldera jotzen zuena, ordea, irekita. Kaskabeltz handi bat agertu zen leihoan, zuhurtasunez, ogiak erakarrita. Presaka, jaten hasi zen ahal zuen guztia. Baina une hartantxe bertan ez zitzaion agertu bada Manex leiho erdian? Kaskabeltzak, ihesari eman zion, kanpo alderantz, baina kaiolako ate hura itxita zegoen. Mutikoak, zitzu bizian itxi zion barnealdekoa, eta horrelaxe harrapatu zuen kaskabeltz hura. Poz-pozik, etxe barrura eraman zuen Manexek kaiola txoriarekin. Sukaldean, ura eta janari gehiago jarri zizkion, hegaztia gustura senti zedin bere etxe berriari, baina txoria erotu beharrean zebilen kaiolan, mokoarekin burdin harien kontra behin eta berriz joz, indar handiz, ihes egin nahian, baina lortzen zuen gauza bakarra, moko alboetan zauriak egitea eta odoljariora sortzea zen. Manex, oheratzeko garaian, alde batetik, pozik zegoen, egun hartan eskuratu zuelako hain gogokoa zuen txori haletako bat, baina, bestetik, ez zegoen baxterez, kaskabeltz gaixoaren portaera eta jokabide erogarria ikusita. Biharamunean ere, eguna argitu bezain azkar, zoritxarreko txoria esnatu eta, bezperan bezalaxe, jo eta su hasi zen kaiolako burdin hariak jotzen bere buruaren, hanka egiteko helburu. Ez zuen etsitzen. Moko ondoko zauriak ireki eta handitu egin zitzaizkion. Odoljariora gero eta larriagoa zen. Horrela eman zuen bigarren egun osoa ere, jateko eta edateko betarik hartu gabe, harik eta gauerako, guztiz ahuldu eta abailduta gelditu zen arte. Manexek ez zekien ongi zer pentsatu, baina bigarren gauean ere zeharo kezkatuta oheratu zen. Hurrengo goizean, Manex gizagaixoaren atsekabea eta negarraldia, kaskabeltz handia kaiola barruan hankaz gora, hilda ikusi zuenean! Ez zegoen hura inork kontsolatzerik. Goiz osoa erabat zapuztuta pasatu zuen, malakoak bukatu zitzaizkion arte. Seguru asko, gertaera hartatik ondorioren bat aterako zuen.

Irakurleak mintzo

Hausnarketa

Arantxa ITURRALDE
(Beintza-Labaien)

Larunbata, Labaien-
go inauteriak, gazte tal-
dea puxka biltzen, ger-
takaria: ezbehar bat,
urgentzitarra hurbildu
beharra,...

Nire haserrea, ego-
nezina, tristura adiera-
zi nahi nuke idatzi ho-
nen bitartez. Hainbat
galdera datozkit nire bu-
rura: noiztik norbaiten
ezbeharrarekin poztu-
zen gara eta irri egiten
dugu?, zer nolako balo-
reak ditugu?, ez al du-
gu besteekiko karitatea,
laguntasuna, egoera be-
rezi hauetan? jarrera ho-
riek al dira gure guraso-
ek transmititu digutena?
honelako gazteekin erai-
ki nahi al dugu Labai-
engo herria? horrelako
pertsoneen esku gelditu
behar ote du gure etor-
kizunak?...

Kezkagarria da ikus-
tea zein nabarmena den
hainbat baloreen falta.

Gaurko eguneroko-
tasunean hainbat jarre-
ra txertatu ditugu gure
gizartean: baloreen gar-
bezia, gezurra, iruzurra,
lotsa falta, berekoike-
ria, lizunkeria, jokabide
antisozial eta gizatasu-
nik gabekoak, eta ez di-
tugu neurtzen jarrera
hauen kalteak eta on-
dorioak.

Familietan jaso izan
diren betiko baloreak,
beste balore batzuetan
bihurto eta bultzatzen
dira gaurko gizarte ho-
netan: materialismoa,
ondo pasatzeari gar-
rantzia eman edozer
gauzaren ganetik, indi-
bidualismoa, asertibita-
te falta, hedonismoa,

edozerk balio du. Zo-
ritzarrez erreferentzia
moralak aldatzen doaz,
eta ezerk ez du axola
"ni izan ezik".

Gizartearen oinarri-
an, betiko trasmizio bi-
deak izan diren familia
eta heziketa, desager-
tzen doaz, betidanik
ezagutu oi izan den mo-
duan. Laguntasuna, le-
ialtasuna eta ohorea bi-
zikidetzaren oinarritzat
hartu diren bitartean,
norberaren interesak
mugitzen gaitu gaur
egun.

Bukatzeke, espe-
rantza eta konfiantza ez
dut galdu nahi, barruan
dugun gizaki hori noiz-
bait kanporatuko dugula
eta lagun urkoa gu
bagina bezala zaindu-
ko dugula. Hala izan be-
diiii!

Ituren eta
Zubietako
Udalen oharra
inauterien
inguruanMari Jose BERAU
BALEZTENA eta Ernesto
DOMINGUEZ OLEA (Ituren
eta Zubietako alkateak)

Nafarroako Gober-
nuko 34/2009 Foru De-
kretuak deklaratu zitu-
en Ituren eta Zubie-
tako inauteriak interes
kultureko ondasun in-
materiala. Ondoren, Via-
nako Printzea Erakun-
dea-Kultura eta Turis-
moko kontseilariaren
21/2011 Foru Agindu-
ak, martxoaren 3koa,
adierazi zuen Nafarroa-
ko Interes Turistikoko
Festa direla.

Aurtengo inauterie-
tako portaera bakan
batzuk piztu duten eran-
tzun eta erreklamazio-
en aurrean, Ituren eta
Zubietako Udalek ADIE-
RAZTEN DUTE:

1. Inauteria da kultur
espresio herrikoi bat eta
bi dira haren benetazko
protagonistak: *joaldu-
nak* eta *mozorroak*. Itu-
rengo eta Zubietako
Udalek ez dute ospaki-
zunaren antolakuntzan
nahiz finantzaketan par-
te hartzen.

2. Animalia hilak era-
kustea ez dago jaiaren
ondare-kulturearen bai-
tan eta Udalak erabile-
ra horren aurka daude.
Gainera, konpromisoa
hartzen dute animalien
babesari buruz indarrean
dagoen araudiaren
betetzea zaintzeko; be-
tiere, bere eskumenen
esparruan eta esku
dauzkaten baliabidee-
kin.

3. Ez dugu onartzen
zenbait pertsona zein
talde animalistak sare
sozialetan eta agiritan
egin duten irudien era-
bilera interesatu eta ma-
nipulatua —aurreko ur-
teetako eta beste herri-
etako jaietako argazki-
ak sartuz—, itxura fal-
tsu hau ematea helbu-
ru: ospakizunaren mui-
na osatzen duela hilotz,
odol eta erraien akela-
re batek.

4. Gaitzesten ditugu
sare sozialetan argita-
ratu eta Udaletxetara bi-
dalitako gorroto adie-
razpen, irain eta meha-
tsu guztiak, bi herri
hauetako biztanleei zu-
zenduak. Haien aurka,
bidezko lege-ekintzak
abiaraztea aztertzen ari
da.

Steilas-ek
Hazte Oir
erakundearen
kanpaina
arbuiazen du,
gorrotoa eta
bazterkeria
sustatzen baitu

STEILAS sindikatua

Datorren martxoaren
5etik aurrera Euskal He-
rrira etortzeko omen
da mezu transfobikoa
daraman autobusa. Ho-
nen aurrean STEILAS
sindikatuak honakoak
eman nahi ditu aditze-
ra:

- Zeharo arbuiazen
dugu gorrotoa eta
bazterketa bultzatzea
helburu duen edozein
ekimen.

- Aniztasun afektibo-
sexuala eta genero
aniztasunaren aldeko
konpromiso irmoa be-
rresten dugu eta hez-
kuntzak horren alde har-
tu behar duen papera
azpimarratzen dugu. Bi-
de horretan hezikidetz-
a bidea gogorazi
nahi dugu.

- Dei egiten diogu
hezkuntza komunitate
osoari aniztasunarekin
bat egiteko eta LGTBIQ-

fobikoak diren portae-
ren eta ekimenen kon-
tra borrokatzeko. Adi-
tuko digute, gure erant-
zuna aniztasunaren lan-
keta izanen baita.

- Eskuera zuzena egi-
ten diegu Iruñeko, Gas-
teizeko, Donostiako eta
Bilboko alkateei zein La-
kua eta Iruñeko Gober-
nuei gorrotoa bultzatzea
helburu duen autobu-
saren aurkako neurriak
hartzeko.

Plazan bazan
ataleko elur
kristalak

Andrew SMITH (Zubieta)

Nik uste dut *Plazan
Bazan* ideia ona dela.
Umeentzat jostagarria
eta argigarria da; hala
ere, buruhaustea ze-
haztasuna izan beharra
dute.

Elur kristalak oso
bitxiak dira, oso forma
ederrak hartzen dituzte
eta ez omen dira bi ber-
din... Baina, elur krista-
lek beti sei puntu dituzte
("Six-fold radial sym-
metry" dute). Irudian elur
kristal guztiek lau edo
zortzi puntu dituzte.

Eskuminak.



IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.eus

Posta: Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA

Tel.: 948 63 54 58

Faxa: 948 63 54 57

Prentsatik bildutakoak



«Ez baitzen fabrikarik, eta ez baitzen lanik. Hemen bazen baserriko lana, eta, arratsen, kontrabandoa. Gero, kontrabandoa hasi zen gutxitzen, eta orduan jendea Ameriketara joan zen, edo Frantziara, oihanean arbolak botatzera. Fabrika ere hasi zen. Baina garai hartan merkeago zen menditik ekartzea, aduanan dezente pagatu behar baitzen».

«Behin frantsesek gelditu, eta argazkia egin zidaten. Harrapatu ninduen Interpolek edo, eta ekarri ninduten hona; pasaportea kendu zidaten, eta ute nuen preso eramanen nindutela, baina ez. Gero epaiketa egin zuten, eta ez nintzen joan. Abisua ailegatu zitzaidan, dena ukatu nuen, eta ez zitzaidan deus ere gertatu. Ez nuen Frantziara joaterik bi urtean».

Xanti ELIZAGOIEN
Etxalarko baserritarra
BERRIA 2017.02.26

Xanti ELIZAGOIEN
Etxalarko baserritarra
BERRIA 2017.02.26

11 galdera labur

Nor da Josebiñe Agirre?

Hamasei urteko neska alai bat naiz, lagunekin egotea maite duena.

Ttipi-Ttapako fitxaje berria zaitugu...

Korori lagunduko diot Zugarramurdiko berriemaile lanetan. Margari aritu izan da urte askoan berarekin batera utzi nahi zuenez, laguntzeko proposamena egin zidan. Baietz erran nion! Ea nola moldatzen naizen...

Zer berri emanen zenuke gustura?

Herrian egiten diren ekitaldiek, besitek... arrakasta izan dutela, parte hartzea handia izan dela.

Zein afizio dituzu?

Maite dut irakurtzea, mendian ibiltzea eta besta egitea.

Zein liburu duzu esku artean?

Joseba Sarrionandiaren *Marginalia*.

Zein liburu gomendatuko zeniguke?

Euskaraz, gaztelera eta frantsesez irakurtzeko ohitura dut. Baina bat errateko, *Coeur d'encre*, gomendatuko nuke haurrentzako liburu oso polita da.

Zugarramurdira bisitan joanen bagina...

Atxuria mendira igo, lezeak eta museoa bisitatu eta pottoken bidea egitea gomendatuko nizueke.

Zugarramurdik zer du soberan eta zer faltan?

Soberan deus ere ez eta faltan agian gazte gehixeago.

Zer egin nahiko zenuke etorkizunean?

Munduan barna bidaiatu nahi nuke. Ez zait inporta nora. Jende, kultura, leku... berriak ezagutzeko modua baldin badut.

Zerk egiten zaitu zorionsu?

Lagunekin egoteak.

Amets bat?

Egunen batean Euskal Herria aske izatea.



Josebiñe AGIRRE → Zugarramurdiko berriemaile

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

sarobe[®]
gozotegia okindegia
pº de eztegara 25 bajo
31780 berà(navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

KATEA BIKE
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA.
Eta orain, GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK, bizikleta estatikoak lasterketako zintak
2. eskuko bizikletak
Kanttonberri 1, BERA 948 631 218
kateabera@telefonica.net
MASSORBEA ORBEA CANNON SCOTT LOOK

Alberto RETEGI
abokatua
948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

MARITX
Legia, 23-BERA Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak
T. (0034) 636 617 450

Zalain
JATETXEA · RESTAURANTE
Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.info

Hk podologia

Nora Maiza Arozena

Legia 42, 31870 Bera

T. 688 878 177

KIROPODIA
HAUR PODOLOGIA
KIROL PODOLOGIA
OIN AZTERKETA DIGITALA
ORTOPODOLOGIA
ORTONIXIA
OIN DIABETIKOIA
KIRURGIA PODOLOGIKOIA

Pausoz pauso, oinazerik gabe

Oinaren osasunean espezialista da **Nora Maiza Arozena**. Bartzelonan egin zituen podologia ikasketak eta ondoren Mallorcako ospitale bateko oin-unitatean aritu zen lanean sei urtez. Graduondo eta master bat ere egin zituen Bartzelonan eta zirugian eta ortopodologian espezializatu ondotik, bueltan etorri zen duela lau urte Hondarribira, bertan Hk klinika irekitzeko. Orain zerbitzua eskualdera zabaldu du eta **Beran, Legia karrikan**, ireki du klinika berria.




«Oina bere osotasunean eta ikuspuntu ezberdinetatik aztertu behar da, bakoitzaren beharretara egokitzen den erantzuna emateko».

ESKAITZEN DIREN ZERBITZUAK:


AZKAZALEN ZIRUGIA

Behin eta berriz azkazalak haragian sartzen direnean min handia ematen dute. Teknika berriei esker minik gabe konpon liteke arazoa.




OINETAKO MINEN AZTERKETA ETA TRATAMENDUA

Oinek min egiten dutenean, minaren jatorria zein den jakitea ezinbestekoa da. Horretarako, oina bera aztertzearekin batera ibiltzeko era ere aztertu behar da: bihur-dura mugimenduak, pausoa nola ematen den, belaur eta orkatilen desbideraketak... Ondoren plantillak behar ote diren baloratzen da.




PLANTILLA PERTSONALIZATUAK

Bezere bakoitzak bere beharrak ditu eta horregatik, norberaren oinera egokitzen den plantillak egiten dituzte Hk podologiako taile-rraan. Plantilla horiekin ibiltzeko modua kontrolatzen da, momentuko zein etorkizuneko oinazeak ekiditeko.



KIROL AZTERKETA BIOMEKANIKOAK

Kirolarien oin-lesioak nondik datozten jakiteko azterketa berezia eskaintzen dute. Ordenagailu bidezko miaketa biomekanikoen bidez, gorputzeko atal ezberdinen funtzioa eta sinkronizazioa aztertzen da. Horrek kirolariaren errendimenduan eta lesio ezberdinen prebentzioan eragin zuzena du.



BERA

GIZARTEA → MARTXOAREN 18AN KULTUR ETXEAN

Nafarroako bertsolari txapelketako finalaurrea herrian

Sarrerak 10 eurotan salgai daude Errekalden edo internet bidez



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Julio Soto gaur egungo txapelketa irabazlea.

nalurrekoetara sailkatutako 18 bertsolariak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako 43. Bertsolari txapelketako lehen fasea, final-laurdenetakoa, bukatu berri-tan, Kultur Etxean jokatuko da lehenbiziko finalurrekoa martxoaren 18an, 17:30ean. Hau idazterakoan, oraindik erabaki gabe zeuden fi-



UTZITAKO ARGAZKIA

Endarlatsako historia hurbiletik ezagutzeko aukera

Otsaileko azken asteburuan, Endarlatsak historian zehar izan duen garrantzi-az aritzeko jardunaldiak antolatu zituzten Udalak eta Kultur Batzordeak. Ortziralean, *Endarlatsako fusilamenduak*. Santa Cruz apezka solasaldia eskaini zuten Beralandetan Jesus Arratek eta Aurelio Gutierrezek eta larunbatean bisita gidatua egin zuten Endarlatsako monumentura Aurelio Gutierrezekin.

zein diren, baina gaur egungo txapelketa, Julio Soto, seguru izanen da Beran.

Sarrerak 10 eurotan (arrunta) eta 6 eurotan (bazkideak eta 16 urte-tik beheitikoak) salgai daude. Aitzinetik www.bertsosarrerak.eus web-gunean eta Errakalde ostatuan eros daitezke eta egunean berean Kultur Etxeko leihatilan.

FLASH

Emakumearen Egunekoak

Emakumearen Egunen inguruko ekitaldi-ak borobiltzeko martxoaren 12an *Sufragistas* filma eskainiko dute 18:00etan Beralandetan eta martxoaren 19an 18:00etan *Beraren konkista* antzezla- na eskainiko dute Kultur Etxean.

Kantu zaharren bazkaria

Martxoaren 11n kantu zaharren bazkaria antolatu dute Ibardingo Mendiko sagardotegian. Arantxa Arregiri omenaldia eskainiko zaio eta Ivan Allue, Buhaminak, Aitor Mendiluze, Francisco Santxotena eta Aitor Ibarra ariko dira.



Pertsonaia

Naroa OTAMENDI ABRIL

Arrasateko akordeoi lehiaketan urrezko domina

Isidoro Fagoaga Udala Musika Eskolako Naroa Otamendi Abril urrezko domina lortu du Arrasaten burututako Gipuzkoako XXIX. Akordeoi Jaialdian.

MARTXOAREN 12AN

Goizuetara mendi irteera prest du Agerrak

Agerra mendi taldeak urtero antolatzen duen Bera-Goizueta mendi ibilaldia martxoaren 12an egingen da aurten. Martxoaren 8a baino lehen eman behar da izena elkartearen edo 948 630362 telefonora deituz (gauetz).

Agerratik (goizeko 7etan abiatuko dira mendizaleak) eta Aginatik oinez (8:15ean autobusa hartu Age-

rran eta Agiñaraino hurbilduko dituz mendizaleak) edo Goizuetara autobusez (11etan abiatuta elkartetik) egin daiteke bidea eta Umore Ona elkartearen bazkalduko dute denek. Bertan ordainduko da bai bazkaria, baita autobusa ere.

Agerra Mendi Taldea elkarteak ez du bere gain hartuko gerta daitezkeen edozein istripuren ardura.

K SAT
TELEKOMUNIKAZIOAK

ANDONI LASAGA APEZTEGUIA · T. 637 40 86 40 · 31780 BERA · andonimatxako@gmail.com

- TDT instalazioak
- TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- Satelite bidezko interneta

TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL

Zalain Industrialdea, 42B-4.pab
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

GIZARTEA → AUZITEGI GORENAK ARRAZOIA EMAN DIO FAMILIARI

Zalain lantegia zabaltzeko ingurumen baimena bertan behera uzteko epaia berretsia



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Aski hurbil daude etxeak eta lantegia.

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak emandako epaiak bere garaian Zalain lantegiko instalazioak handitzeko Nafarroako Gobernuak onartu zuen ingurumen baimena bertan behera utzi zuen 2015eko abenduan. Lesakako auzoan bizi den familia batek demanda aurkeztua zuen, beraien etxebizitzari eragiten zion zarataren emisioa zuzendu zezan enpresak. Nafarroako Gobernuak eta familiak errekurtsioa jarri zuten eta orain azken honi arrazoi eman dio Auzitegi Gorenak.

Afera aztertu eta epaiketa egin ondotik, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak ontzat hartu zuen demanda eta ingurumen baimena bertan behera utzi zuen 2015eko abenduan. Sententziak zioenez, Nafarroako Gobernuak tubo biltegi berri baterako ingurumen baimena eman zuen 2011n, zortzi urterako baliagarria. Baimen horren barne zegoen olioak kontzeko 26 metro kubiko edukiera zuten bitziz eraikitzea. Familiak errekurtsioa jarri zuen, horretarako ingurumen baimen berri bat beharrezkoa zela adieraziz, baina UPNren Gobernuak ez zuen onartu eta horregatik ekin zioten auzibideari, «baina ez dute inolaz ere lantegia eta langileak kaltetu, eta neurririk hartzerik nahi».

MENDIKO JATETXEA

IBARDIN

KANTU ZAHAR BAZKARIA

2017^{ko} MARTXOAK 11 • 14:00

45€
BAZKARIA LIBURUA

PARTE-HARTZAILEAK
IVAN ALLUE (ESKOZIAR ETA IRLANDAKO GAITEROA)
IPARRALDEKO BUHAMINAK (EMAKUME ABESBATZA)
AITOR MENDILUZE
FRANCISCO SANTXOTENA · AITOR IBARRA
OMENALDIA ARANTXA ARREGI

IZEN-EMATEAK Mendiko Sagardotegian: 948 630 302 / 670 365 011 telefonoetan
Antolatzaileak: Angel Mariezkurrena | Mendiko Sagardotegia

LESAKA

KULTURA → MARTXOAREN 25EAN

Gaztetxo eta haurren kantu jaialdiko saioa Harriondoan egingen dute

Eskualdeko kantariak ariko dira

Aitor AROTZENA

Martxoaren 18an Zangozan eta 19an Lakuntzan egingen diren ondotik, Nafarroako haur eta gaztetxo kantari jaialdiko hirugarren saioa herrian egingen dute martxoaren 25ean, 18:00etan Harriondoa Kultur Etxean. Ohikoa denez, Nafarroa Oinez antolatzen duen herrian izaten da saioetako bat. Mendaur trikitixa eskola, Baztan ikastola, Goizuetako Xalto eskola, Sunbillako eskola, Azpilluetako eskola, Leitzako eskola eta Tantirumairu ikastolako taldeak ariko dira kantari. Apirilaren 1ean Burlatan eta jaialdi nagusia apirilaren 5ean Tafallan egingen dituzte.

Aita eta aitaxien eguneko bazkaria

San Fermin jubilatuta eta pentsionisten elkar-tek antolatuta, urteroko moduan aita eta aitoxien eguneko bazkaria egingen dute martxoaren 19an, 14:00etan elkartearen egoitzan. Txartelak ostatuan har daitezke 20 euro ordainduz eta izena emateko epea martxoaren 15ean bukatuko da. Guttienez 5 lagun elkartu behar-ko dira bazkaria egiteko.

Herriko eta Elizondoko soinulariak

Martxoaren 18an, datorren larunbatean, emanaldia eskainiko dute Lesakako eta Elizondoko soinulariek Harriondoa Kultur Etxean.



Ba al zenekien

Eskualdeko Solaslagunak, Iruñerriko eta Lizarbeibarko Mintzakideak eta Baztan-Bidasoko Eskualtegiak antolatuta, Mintza Txotx bazkaria egingen dutela martxoaren 11n Linddurrenbordan



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

Zakoza eta mozzorro xaltxa polita izan da inauterietan

Ortzegun Gizeneko Arraultze-Arraultze eskearekin hasi ziren gaztetxoak, larunbatean atera ziren lehen mozzorroak eta igandean zakozarrek hartu zuten protagonismoa. Ttikien kalejiraren ondotik, 50 bat heldu atera ziren zakozar. Goitarrak ere ibili ziren goitiko auzoetan. Astelehenean, Fraindarrak taldearen txanda izan zen. Aurten 40 lagun baino gehiago bildu ziren (tartean 17 neska, inoiz baino gehiago) eta bi taldetan banatu ziren. Herrian, bien bitartean, karrorza eta mozzorro ikusgarriak ikusi ziren.

BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa - LESAKA
Tfnoa: 948 637 826

- Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak
kattagorria
lentzeria mertzzeria
Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

IRU BIDE
Erretegia · Asador
Biurriana, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

USOA
Nekazari kooperatiba
T. 948 635 214
ETXALAR
• Pentu ekologikoak
• Kalefakzio eta ibilgailuendako gasolioa
ETXEZ ETXKO BANAKETA

GIZARTEA → LAN ESKAINTZA

Turismo langilea behar du Udalak Aste Santuan eta udan lan egiteko

Interesatuak curriculum aurkeztu beharko dute martxoaren 10era bitarte

Irune ELIZAGOIEN

Aste Santuan eta udako sasoiaren turismo bulegoan lan egiteko persona baten bila dabil udala. Bere eginkizun nagusia, hurbiltzen diren bisitariei herriko eta inguruko azalpenak ematea eta herrian bisita gidatuak egitea izan da. Interesatuak curriculum aurkeztu beharko dute udaletxean martxoaren 10a baino

lehen. Hauek izanen dira egunak eta ordutegiak: Aste Santua (apirilak 13, 14, 15, 16 eta 17). 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Udan, berriaz, (uztailaren 1etik abuztuaren 31ra) astartetik ortziralera 17:00etatik 19:00etara. Larunbat eta igandetan 10:30etik 13:00etara. Bulegoko lanetik kanpo, ordu bateko bisita gidatuak egin behar dira, Aste Santuan egunero 13:00etan eta udan astetartez 19:00etan eta asteburuetan 13:00etan (2 euro/pertsonako eta irabaziak turismo langilearentzat izanen dira).



Ba al zenekien

Udaberrian egin gogo den herri galdeketaarako sinadurak herriko okindegian biltzen direla



Kimaketak | Mantentze-lanak
Lorategiak Diseinatzea eta Sortzea
Ureztatze Sistema Automatikoak | Paisajismoa



Otxangoko Ind. 18 | LESAKA
T. 619 418 683 | johntelletxea@hotmail.com
www.telletxealozaintza.com



ARGAZKIAK: REBEKA ARANZADI, ANJEL MENDIKOA ETA IRUNE ELIZAGOIEN

Giro onean joan dira inauteriak

Ortzegun gizenarekin hasi eta astearte ihaute egunarekin agurtu dituzte inauteriak Etxalartarrek. Nahiz eta asteartean eguraldiak ez lagundu, orokorrean giro ederra eta mozorro ikusgarriak ikusteko aukera izan da.

ARANTZA

KIROLA → EKAITZA ELKARTEAK ETA UDALAK ANTOLATUTA

Apirilaren 23an egingen den mendi lasterketarako izen-ematea zabalik da

20 kilometro eta 1.300 metroko desnibel positiboa du

Nerea ALTZURI

Apirilaren 23an, Arantzako II. Mendi Lasterketa izanen da Ekaitza Elkarteko Mendi Batzordeak eta Udaleko Kultura eta Kirol Batzordeak elkarlanean antolatuta.

09:30ean hasiko da eta 20 kilometro eta 1.300 metroko desnibel positiboa dituen lasterketaren ibilbidea hauxe izanen da: herriko plazatik abiatu eta medikuaren etxetik barna, Miaka, Bulatxiki, Illurdi, Ekaitza, Ibitntza eta Oirlargata pasatu, eta Aientsatik Arruzpin barna herriko plazara.

Mendi ibilaldia puntuagarria da eta Nafarroako Mendi Lasterketen Koparen barne dago. Inskripzioak www.kirolprobak.com-en egin daitezke.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urteko mendi lasterketako irudi bat, tartean ageri da Imanol Lukanbio herritarra.

Erorketen inguruko tailerra

Martxoaren 8an eta 15ean, 09:00etatik 10:30era, Bittore eta Maribel herriko erizain eta medikuak erorketen gaineko tailerra eskainiko dute Baskulan. Erorketen aitzinean, nola zaindu aholkuak ematen dituzte.

Parte hartu nahi duzutenek Bittore edo Maribel erran behar diote.

MARTXOAREN 11N

Dena prest larunbateko trikitixa jaialdirako

Larunbat honetan, martxoak 11, trikitixa eta pandero soinuak nagusituko dira herriko frontoian. Bertze urte batez, Trikitixa Jaialdia antolatu du Udaleko Kultura Batzordeak eta herriko trikitilari eta panderojoleez gain, inguruko hainbat eskoletako soinulariak bilduko dira hitzorduan. Musikariez gain, joan den urtean bezala, Azpeitiko Sahatsa Dantza Taldeko dantzarien emanaldiak ere tartekatuko dira saioan. Bukaeran, berriz, Pantaleon Errandoneak omenaldia hartuko du.

17:00etan hasita arratsalde polita pasatzeko modua izanen da. Partaide guztientzat oroigarriak izanen dira eta zozketak ere izanen dira, baita publikoaren artean ere. Emanaldirako sarrera, 5 euro izanen da eta 12 urtez behetikoek ez dute ordaindu behar.

PELLE-TTIKIREN 10. URTEMUGA

Pelle-Ttiki Haur Txokoaren 10. urtebetetzea ospatzeko, Trikitixa Jaialdiak irauten duen bitartean, haurrentzako tailerrak izanen dira. Bertzetik, hamar urteko ibilbidearen argazki erakusketa ere ikusgai izanen da.

GURE ESKU DAGO BERTSO AFARIA

Larunbatean baita ere, Gure Esku Dago bertso afaria izanen da Ekaitza Elkartean, Iker Zubeldia eta Sebastian Lizaso bertsoariekin.



SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
KOLTXOIAK - ETXETRESNAK

Erakusketa Bereau etxean

BORTZIRI
UNSION ANAIK

Erakusketa: Bereau Etxea LESAKA Nafarroa
T. 948637266 M. 607226891
bortzirialtzari@telefonica.net

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaia
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

ERREKALDE
OSTATUA

PLATER KONBINAITUAK
PINTXOAK
BOKATXAK

TFBNA: 948 630 259
BERA

GIZARTEA → OTSAILAREN 17 ETA 18AN

Giro ederrean eta parte hartze handiarekin joan dira inauteriak

Elgorriagako Hilarion jatetxean bi lagunendako otordua zozketatu zen eta lehen aldiz bingoa ere izan zuten

TTIPI-TTAPA

Giro ederrean eta gazteen parte hartze handiarekin joan ziren Igantziko inauteriak.

Otsailaren 17an, ortzi-ralean, Berrizaun eta Frain aldeko baserrietan ibili ziren gazteak eta arratsaldean Sarrola eta Lasaga inguruetan. Larunbatean, berriz, Irisarri, herria, Unanu eta Piedade gaineko inguruan ibili ziren. Aurtengoan, bildotsa eta ardo lotearen ordean, Elgorriagako Hilarion jatetxean bi lagunendako otordua zozketatu zuten eta berrikuntza moduan, bingoa ere egin zuten larunbat arratsaldean.

Hilarion jatetxeko



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Gazte kuadrilla ederra ibili zen etxex etxeko itzulian inauterietan.

otorduei dagokienez, lehen zenbaki sariduna 46a izan zen. Bertan eta hau idazterakoan, ez da saridunik agertu eta martxoaren 4rako saridunik agertu izan ez balitz, hurrengo zenbakia 101a izanen da. Hau ere hamabortz egunen buruan (martxoaren 19a baino lehen) agertuko ez balitz, 21a izanen da zenbaki sariduna.

Zozketaren ondotik bingoa ere egin zuten eta jende aunitz bildu

Ba al zenekien

Igande honetan Ororbian hasi diren Herri Kiroi Jokoetan bi talde atera dituela aurtun Igantzik. Kimuen mailan (2005. eta 2006. urteetan jaioak) proba konbinatuan ariko dira bi taldeak. Martxoaren 12an Betelun, 19an Altsasun, eta 26an Berriozarren izanen dituzte saioak eta finala apirilaren 2an izanen da Etxarri Aranatzan.

zen. Lerroa egiten zuen txorizo bat izan zuten saritzat eta Faustino Tabernak lortu zuen. Bingoa, berriz, Ramontxo Retegik egin zuen eta honek urdaiazpikoa etxeratu zuen.

Mozorro guztiek eskerrak eman nahi dizkiete herritar guztiei bi egun hauetan emandako babesa eta laguntzaren gatik, «baita herrira agertu eta kanpotik hurbildu diren guziei ere!».



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Merkealdien azken errematea!

Edredoi nordikoetan espezialistak

edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

KULTURA

ZINEMA → MARTXOAREN 3TIK APIRILAREN 7RA 32 HERRI ETA HIRITAN IKUSGAI IZANEN DA

Igantziko azken saskigileari buruzko dokumentala Laburbira Zikloan ikusgai

Euskal Herrian ez ezik, Paris, New York eta Londonen ere emanen dute

TTIPI-TTAPA

Euskaltzaleen Topaguneak antolatzen duen aurtengo Laburbira programarako, Katubik Beran ekoiztutako *Azken saskia* dokumental laburra aukeratu dute, beste 6 filmekin batera. Tartean, Kimuak-eko hiru maisulan daude, «beraz ikaragarriko ohorea da guretzat hor egotea», dio Katubiko Oier Fuentes egileak. Horretaz gain, Euspot lehiaketako onenak ere egongo dira.

Aurtengoan, martxo-



ARGAZKIA: AZKEN SASKIA

Jesus Mari Sein saskigilearen istorioa azaltzen du dokumentalak.

aren 3tik Apirilaren 7ra garatzen ari da Laburbira, eta guztira 32 herri eta hiritan egongo dira ikusgai lanak: Azpeitia, Sondika, Paris, New York City, Gasteiz, Larraintzar-Ultzama, Hernani, Ermua, Arespal-

ditza, Lazkao, Basauri, Arrasate, Soraluze, Zumai, Sestao, Areatza, Valentzia, Araia-Asparrena, Usurbil, Bergara, Ordizia, Biasteri, Azkoitia, Mutriku, Arbizu, Elgoibar, London, Agurain eta Igorre.

AZKEN SASKIA

Azken saskia dokumentalean, Jesus Mari Seinen historia kontatzen da. Jesus Mari Sein Igantziko azken saskigilea izateaz gain, gaztainarekin saskiak lehengo eran egiten di-

tuen azken nafarra da. Ikus-entzunezko hone-tan bere ofizioa eta bizitzaren errepaso bat egiten da, eta bere azken saskia egiten ikusten da, ogibide honen desagerpenaren arrazoiengatik inguruko hausnarketa bultzatuz.

Osorik ikusi nahi bada, aukerarik onena Laburbirako proiektioetara hurbiltzea da, *Azken Saskiaz* gain beste lan interesgarri batzuk ikusgai izanzen direlako. Bertzela, norbere herrian proiektio bat antolatu nahi duenak, Katubirekin harremanean jarri behar du. Bertze aukera bat ere bada: Katubin harpidetu, hain zuzen KTB zerrenda pribatuan eta doan eta sarean ikusi orain.

GIZARTEA → ZINEMALDIACAT JAIALDIAN

‘Gutik ZUra’ dokumentala Katalunian saritu dute

Mari Jose Barriola zuzendariak jaso zuen Urrezko Txapela Bartzelonan

TTIPI-TTAPA

Kataluniako Zinemaldian, euskarazko filmirik onenari emandako Urrezko Txapela lortu du *Gutik Zura* dokumentalak. Mari Jose Barriola proiektuaren zuzendariak jaso zuen saria otsailaren 19an Bartzel-



UTZITAKO ARGAZKIA

Mari Jose Barriola proiektuaren zuzendaria, saria jasotzen Bartzelonan.

lonan. Otsailaren 9tik 25era burutu da XII. Festival de Cinema Basc a Catalunya, Zinemaldia-

cat, euskal zinemaren alfonbra gorria Bartzelonan. Jaialdiaren hamabigarren edizioko sa-

il ofizialeko programazioa hamar pelikulek osatu zuten (6 dokumental eta fikziozko 4).

ELKARTEA → AZKEN URTEETAKO HANDIENA

Nafarroako Kutxa Fundazioak 10.000 euroko laguntza eman dio elkarteari

Fernando ETXEBERRIA

Zahartzaro aktiboa programaren baitan 73,24 puntu lortu ditu Arkupeak elkarteak aurkezteko proiektuak, batz bestekoaren (62,46 puntu) oso gainetik. Jose Luis Legarra, Elkarteko presidentea, Maria Eugenia, diruzainak, eta Garbiñe, idazkariak, gogotik egin dute lana 2017ko ekintza guztiak biltzen dituen proiektua aurkezteko eta ahaleginak eman du fruitua, azken urteetan jaso dugun diru-laguntzarik altuena lortu baita, 10.000 euro (orain artean 2.000 eta 6.000 euroko laguntzak izan dira). Zorionak egindako lanagatik!

Portugalera bidaiak

Aurreikuspen guztiak gaituz, 181 bazkidek eman dute izena Portugalera joateko. Berri pozgarria da jende kopuru handia joanen delako baina kezka ere sortu du, guztiak ostatu hartzeko tokia topatu beharko baita. 70 bat lagun joatea aurreikusuten zuten antolatzaileek eta gainera, kontuan izan behar da data horietan jendetza espero dela Aita Santuak Fatimara egin behar duen bisita dela medio. Aukera guztiak ari dira aztertzen.

Mus txapelketak

Herri gehienek ospatua dute urteroko besta eta mustxapelketa. Eratsunen Migetxo Elizalde eta Jabier Deskaragak lortu zuten txapela; Arantzan Eusebio Gonzalez eta Matias Arozenak; Almandozen Jose Antonio Braña eta Jose Zelaiek; Goizuetan Jose Ramon Sainz eta Eduardo Datok; Donamarian Pedro Bertiz eta Eduardo Elizondok (3); Baztangoiza Juan Marisko eta Maria Pilar Aristegik (4); Leitzan Luzio Irazoki eta Patxi Iparragirrek (2); Beran Migel Perez eta Serafin Esnaolak (1); Elgorriagan Josetxo Iparragirre eta Jesus Santestebanek eta Etxalarren Manuel Arrosamena eta Venancio Elizagoienek. Martxoaren 16an Doneztebeko Santa Maria jate-txean jokatu den finalen herri bakoitzeko lehenbiziko hiru bikoteek parte hartuko dute eta 32 bikotera iritsi arte, laugarren postuan sailkatutakoak ere aritzeko aukera izanen dute.



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Estatuko txanpinoi haztegi handienera bisita

Otsailaren 16an, 102 elkartekide joan ziren Pradejonen dagoen txanpinoi haztegiara, estatuko handiena da. Goizeko 11etan bertako arduradun batek eman zien ongi-etorria eta txanpinoi pintxo bat dastatu ondotik, prozesu guztia nola gauzatzen den jakiteko aukera izan zuten. Ekoizpena, garapena eta salmentari buruzko informazioa eman zieten eta haztegiaren historiari buruzko argazkiak, kuadroak... ikusteko aukera ere izan zuten. Gero autobusez, txanpinoiak eta bestelako perretxikoak landatzen diren tokira joateko aukera ere izan zuten. Bisita bukatutakoan Castejoneko joan ziren eta bertako buffet batean bazkaldu zuten. Arratsaldean Erriberriko gaztelua bisitatu zuten, Nafarroako eraikin historiko-artistiko garrantzitsuenetakoa. 1042 eta 1424 artean eraiki zuten eta pasa den urtean, 200.000 turista baino gehiagok bisitatu zuten.



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Mendi irteera Berara

Otsailaren 21ean 45 mendizale bildu ziren Bera inguruan ibilaldia egiteko. Usategieta, Landa Gaitza, Lizuniaga eta Basiliotik barna Santa Barbararaino joan ziren, bueltan zenbait baserrietatik gertu igarotzen zen bide batetik itzultzeko. Lau ordu eta erdiko ibilaldia egin ondotik Zalain jatetxean hartu zituzten indarrak giro ederrean bazkalduz. Hurrengo ibilaldia Etxalarren egingen dute, martxoaren 21ean eta 08:30ean abiatuko dira. Etxalarko mendizaleak arduratuko dira irteera eta bazkaria antolatzeaz.



SUNBILLA

KULTURA

GIZARTEA → 2017-18 IKASTURTERAKO AURRE-MATRIKULAZIO DATUAK

Zazpi ikasle berri izanen ditu eskolak hurrengo ikasturtean

Ikasle handienak Izaban izan dira eskiatzen Saldias, Labaien eta Narbartekoekin

Maider PETRIRENA

Lehenik eta behin datorren ikasturterako, hau da 2017-2018rako, izen eman duten ikasleak aipatuko ditugu. Aurrematrikulazio epea otsailaren 13tik 17ra izan zen eta guztira Sunbillako eskolan 7 ikaslek eman dute izena: 3 neskek eta 4 mutikok.

Inauterietako argazki lehiaketa

Inauterietako argazki lehiaketa seigarren urtez antolatu du Udalak. Arrakasta eskasa izan du urte guzti hauetan eta aurtengoan oraindik eskasagoa. Bik bakarrik parte hartu dute eta irabazlea Mainer Petrirena izan da.

Herri tiki, infernu handi

Igande gauero ETB1en *Herri tiki infernu handi* programa umoretsua ikusteko aukera izaten da. Gure eskualdeko hainbat herri



ARGAZKIAK: JAIONE OTXANDORENAK ETA ESKOLAK UTZIAK

Zuhaitzaren Eguna inoiz baino arrakastatsuagoa

Aurreko alean aipatu bezala Sunbillako eskolako bosgarren eta seigarren mailako ikasleak Jaime Sein irakaslea eta bertze herrietako ikasleekin batera (Narbart, Labaien eta Saldias) otsailaren 19tik 24ra bitarte Izaban elurretan gozatzeko aukera izan zuten. Urzainkiko aterpetxean lo egin eta Izaban denbora ederrarekin eskiatzeko aukera bikaina izan dute. Oso esperientzia polita izan da beraiantzat.

atera dira jada eta hurrengo gure herria, Sunbilla, aterako da. Grabaketak egin ondoren martxoaren 9an arratsaldeko 8etan udal pilotalekuan ikusteko aukera izanen dugu. Animatu bertan parte hartzera.

Euskal Herriko mus txapelketa

Euskal Herriko mus txapelketaren herriko kanporaketa urtarrilaren 21 ean izan zen. Lehen bi bikoteak (Jose Migel Galain-Jose Luis Agirre eta Maria Sarra-tea-Aintzane Arretxea)

otsailaren 25ean Iruñean aritzeko aukera izan zuten. Musean gozatzeko aukera izan zuten eta gainera Jose Migel Galain eta Jose Luis Agirrek martxoaren 25ean Euskal herriko finalean parte hartzeko txartela lortu dute.



LITERATURA

'Sumendia baratzean' liburua argitaratu dute

TTIPI-TTAPA

5 eta 9 urte arteko haurrei zuzenduta *Sumendia baratzean* liburua argitara eman dute Izaskun Zubialde Zubietarrak eta Barkarne Atxukarrok eta Asun Egurzak elkarlanean, Denonartean argitartzearekin.

Haurrentzako Euskal Mitologia ipuin bildumaren egileek emozio eta baloreetan oinarritutako kontakizunak hasi dira plazaratzen 2017. urtean zehar. *Sumendia baratzean* da bilduma berri honetako lehen alea.

Liburuak euskaraz eta erdaraz eskuratu ahal izanen dira eta laster baita ingelesez ere. Lehenengo ale honetan errespetua eta naturarekiko maitasuna jorratzen da, eta liburu denda guztietan salgai dago jada, 10 euroan. Maiatzean iritsiko da hurrengo zenbakia eta horrela poliki-poliki bilduma osatu arte.

Bidasoa
GASOLINDEGIA

A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA

24 ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

LIZUN
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862

Manterola
Tekniko instalatzailea

ITURGINTZA · GASA KALEFAKZIOA

Zerbitzu anitzak & Gremioen koordinazioa

629 449 602

GIZARTEA → MARTXOAREN 8KO OSPAKIZUNEN HARIRA

Musikoterapia tailerra eta autodefentsa ikastaroa prest

Haizea Loira adituak eskainiko du musikoterapia lau ortzirez eta Emagin elkarteak autodefentsakoa hilaren 25ean

Marga ERDOZAIN

Musikoterapia tailerra antolatu du Udalak eta Haizea Loira musikoterapiari adituak eskainiko du. Autodefentsa ikastaroa Malerre-kako Gazte Asanbladak eta Mankomunitateko Prebentzio batzordeak elkarlanean antolatua da. Emagin elkarteak eskainiko du.

Emakumeentzat Musikoterapia tailerlean emakume izatean sarkontzeko aukerak eskaini nahi da. Martxoaren 17, 24, 31n eta apirilaren 7an burutuko da, gaueko 8etatik 9:30era. Apuntatzeko alkate-tza@doneztebe.eus helbidera idatzi behar da edo 659379917 telefonora deitu behar da (Leire Ortuoste). Tailerren prezioa 10 eurokoa da.

Tailer honen xedea, emakumea osatzen duten aspektuetan maitzea da, esperientzia musikalen bidez autoezagutza eta norbere potentziala garatzea bultzatuz, norberaren emozioekin eta besteekin topatzea ahalbidetuz eta jabekuntza prozesua sustatuz.

Musika, irudi eta



UTZITAKO ARGAZKIA

Karroza eta mozorro ikusgarriak atera dira aurtien ere inauterietan.

dantzaz baliatuta, pentsamendu eta kezka desberdinen miaketa eta adieraztea eragingo da, hauekiko norberak eskura dituen aukerak zabaldu asmoz. Helburu nagusiak, ingurune ziu batean ezagutzea, askatasunez adierazteko gune bat edukitzea, entzuna izatea, norbere konfiantza indartzea eta musikarekin zein beste pertsonekin era-

Ba al zenekien

Mendaur Institutuko ikasleek ETB1eko **Burubero** saiora joan direla publiko gisa. Martxoaren 21, 22 eta 23an Malerre-kako ikasleek grabatutako saioak ikusteko aukera izanen da.

tutako harremanen bidez norbere buruaz jabetzen jarraitzea da.

AUTODEFENTSA TAILERRA

Martxoaren 25ean, kiroldegian goizeko 9etatik 15etara burutu-

ko da. 6 orduko ikastaro honetan arlo psikologikoa eta teknikoa landuko dira. Apuntatzeko Malerre-kako Mankomunitatera deitu behar da, (948 451746 telefonora). Ikastaroa dohanik eskainiko da.

MARTXOAREN 8KO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Berdintasun-politikak sustatzen segituko du Udalak, ahobatez hartutako erabakian

Marga ERDOZAIN

Emakumeen nazioarteko egunaren aldarrikapen harira, aho batez otsaileko bilkuran adierazpen instituzionala onartu zuen Udalak. Adierazpen honen izenburua honako hau da: *Eta zuk zer, erran ala egin? Oraindik ere ez dago berdintasunik: feminismoa da bidea. Oraindik emakumeak diskriminatu, ikusezin bihurtu eta zanpatu egiten dituen gizarte patriarkal batean bizi garelako.* Onar-

tutako adierazpen horretan udalak, toki-erakunde den aldetik, honako konpromiso hauek adierazi nahi ditu: «Doneztebeko udalak berdintasun-politikak bultzatzen jarraituko du, bere politika publiko guztietan berdintasun-printzipioa txertatuko du, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzera bideratutako ekintzak abiaraziko ditu. Mugimendu feministaren eskariak eta borrorak bultzatuko ditu».

AGENDA

Xabiererra joateko autobusa

Xabiererra joateko autobusa antolatu du aurtien ere Errekak. Martxoaren 11n, larunbatean, Beratik goizeko 04:45ean eta Doneztebetik 05.00etan abiatuko da. Iruñean geldituko da, handik Xabiererra dauden 42 kilometroko ibilbidea oinez egiteko. Ondoren, etxera itzultzeko autobusa Xabierren egonen da. Titi ostatuan apuntatu behar da edo 948 450271 telefonora deituz: bazkideek 15 euro eta ez direnek 20 euro ordainduko dute.

Askin Haur Eskola

Askin Haur Eskolako 2017-18 ikasturteko aurre-matrikula zabalik dago martxoaren 15era arte. Argibideak eta eskola ezagutzeko bertatik pasa liteke edo 948451868 edo 683158606 telefonotara deitu.

Gurasoen Txokoa

Seme-alaben heziketari buruzko txokoak hamabortzero hitzordua du. Dagoeneko bi hitzordu burutu dira eta hurrengo martxoaren 10ean izanen da, goizeko 11etatik 12:30era, Herrigunean edo Herriko Ostatuan. Ihintza Elizalde profesionalak bideratutako txoko honetan parte hartzea debalde da.

'Testurak' bertso saio literarioa

Martxoaren 12an, igandean 18:30ean zine-man, *Testurak* izeneko bertso saio literarioa eskainiko dute Oihana Iguaran, Saioa Alkaiza eta Ane Labakak. Gai-jartzaile Amaia Agirre izanen da.

ITUREN

KULTURA → 43. EDIZIOA

Herriko hiru bertsolarik parte hartu dute Nafarroako txapelketan

Iker Gorosterrazuk finalurreko saioan kantatuko du

laurdenean Iker Gorosterrazu eta Egoitz Gorosterrazu anaiek parte hartu zuten. Ikerrek hirugarren postua eskuratu zuen 300 punturekin eta Egoitzek seigarrena, 263 puntu eta erdirekin.

Hau idazterakoan ezin jakin, baina Ikerrek seguruenik lortuko du finalerdietarako sailkatzea. Alaznek eta Egoitzek zailagoa izanen dute eta bertze kanporaketan puntuazioak begiratu beharko dituzte. Halere, zorionak hiruei egindako lanagatik.

TTIPI-TTAPA

43. Nafarroako bertsolari txapelketaren harira Auritzeko Kultur Etxean, bigarren final-laurdena jokatu zen eta bertan Alazne Untxalok laugarren postua lortu zuen 280 punturekin. Bertzalde, otsailaren 26an Lakuntzan izandako hirugarren final-



UTZITAKO ARGAZKIA

Joaldunak Kepa Junkerarekin Bilboko Arriaga antzokian

Korrika Kulturalaren baitan, Maletak diskaren aurkezpena egin du Kepa Junkera trikitilariak otsailaren 19an Bilboko Arriaga antzokian. Hainbat kolaboratzaile eta lagun izan ziren emanaldian, tartean baita Iturengo joaldunak ere.

Bertsorekin jarraituz, martxoaren 5ean Elizondon, *Ez dakusualitatea* bertso saio musikatuan parte hartu zuen Alazne Untxalok, Amaia Agirre, Alaia Martin eta Oihana Iguaran bertsolariekin batera. Saio bikaina eta gustagarria eskaini zuten Gari Otamendi eta Ixak Arruti musikariekin.

Mendaur trikitixa eskolako ikasleak herriz herri

Asteburu honetan, martxoak 11, Arantzako II trikitixa jaialdia ospatuko da eta Mendaur trikitixa eskolako hiru taldek parte hartuko dute. Gainera, datorren martxoaren 25ean Lezakan izanen den Na-

farroako haur eta gaztetxo kantari jaialdian ere 5 taldek parte hartuko dute.

Emakume eguneko afarria

Larunbat honetan, martxoak 11, Iturengo Herriko ostatuan emakumearen eguneko afarria izanen da.

Altzari rustikoak
Altzari modernoak
Gazte tokia
Outlet txokoa
Koltxoiak
Sukaldeak



MUEBLES
TELLETXEA
ALTZARIAK

www.mueblestelletxea.com

Rosa Seminario, 12 | DONEZTEBE
Tel. 948 450 258-948 451 811



Orain sukaldeak ere!


GARANTIA • WARRANTY
12
URTE

VEGASAKITCHEN

BAZTAN-BIDASOA

GIZARTEA → 100 Mb ARTEKO KONEXIO-ABIADURA ESKURATUKO DUTE ERABILTZAILEEK

Interneteko konexio simetriko ultralasterra antena bidez zabaltzen hasi dira



UTZITAKO ARGAZKIA

Banda-zabalera behararren arabera aldatzen ahal da instalazio berririk egin gabe

TTIPI-TTAPA

Dagoeneko eginak dituzte hainbat instalazio ibardin eta Dantxarinear, Berako industrialdean, eta Etxalar eta Igantziko hotel eta jate-txetan. Laster instalazio gehiago egingen dituzte Baztan-Bidasoalde osoan. Horretarako, antenak kokatu dituzte inguruko mendi estrategikoenetan (Larun, Frain, Gorramendi...) eta horien bitartez 100 Mb arteko konexio-abiadura eskuratuko dute erabiltzaileek, igotzeko eta jeisteko.

Javier Ubiria, Bera Informatikako arduradun eta Nafarroako mendialdean sistema honen banatzaile ofizialak adierazi digunez, «Gestel enpresarekin elkarlanean lortu dugu abiadura eta prestazio handiko interneteko konexio-teknologia garatzea, irratiuhinen bidez konektatzen dena, eta horretarako ez da beharrezkoa telefono-linea berri bat kontratatzea». Funtsean, «Baztan-Bidaso aldean parabolikoen antzeko antenen bitartez egiten ditugu konexioak eta nodo hauek bese- te antena nagusi batekin konektatzen dira. Eta antena nagusi hori zuzenean internetera lotua dago zuntz optikoarekin eta, modu horretara, 200 Mb arteko konexio simetriko bermatua dago. Aukeran telefonia eta sare-birtual pribatueta- ra sarbide-zerbitzua ere eskaintzen dugu».

Erakutsi eta probetu aukerak!

TTIPI TXARTELA MALEKREKA

	<p>%10 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Nagusia, 12 DONEZTEBE T. 948 45 0113</p>		
<p>%5 DESKONTUA kosmetikan %5 DESKONTUA oparietan 50€tik gora. Promozioetan ezik</p> <p>Ameztiá DONEZTEBE T. 948 45 01 63</p>	<p>%10 DESKONTUA Skeyndor Eternal kremetan</p> <p>Eliza, 18 behea 2 DONEZTEBE T. 948 45 02 86</p>	<p>%10 DESKONTUA igerilekuko udako abonoan</p> <p>Inato Irazoki DONEZTEBE T. 619 10 73 03</p>	<p>%10 DESKONTUA produktuetan</p> <p>Intzarkadi, z/g DONEZTEBE T. 948 45 03 64</p>
<p>%10 DESKONTUA arropa guztietan</p> <p>Ameztiá DONEZTEBE T. 948 45 16 70</p>	<p>%5 DESKONTUA kosmetikan, opari artikuluetan eta haur-eramailetan</p> <p>T. 948 45 14 73 DONEZTEBE info@kimetzbelardenda.com</p>	<p>%10 DESKONTUA pijama eta barruko arropetan</p> <p>Zazpigurutzte, 11 DONEZTEBE T. 948 45 02 52</p>	<p>%5 DESKONTUA elikatzeko kontzienteko kontsultetan: elikatzeko nutrizionala, energetiko eta emozionala</p> <p>T. 948 45 14 73 DONEZTEBE lorea@kimetzbelardenda.com</p>
<p>%5 DESKONTUA 50€ arteko erosketetan %10 DESKONTUA 50€tik gorako erosketetan Promozioetan ezik</p> <p>Nagusia, 4 DONEZTEBE T. 948 45 07 27</p>	<p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Nagusia, 1 DONEZTEBE T. 948 45 15 71</p>	<p>%10 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Parrokia, 11 DONEZTEBE T. 948 45 01 12</p>	<p>%10 DESKONTUA erloju eta bitxietan 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Ameztiá, 1 DONEZTEBE T. 948 45 09 25</p>
<p>%5 DESKONTUA zakur eta katuen pentsuak</p> <p>Mourges, 20 Nabe 1 DONEZTEBE T. 948 45 18 45</p>	<p>%10 DESKONTUA oinetakoetan</p> <p>Parrokia, 17 DONEZTEBE T. 948 45 02 89</p>	<p>%10 DESKONTUA 12€tik gorako erosketetan</p> <p>Elizagibela, 7 DONEZTEBE T. 948 45 05 21</p>	<p>%10 DESKONTUA eskeletan</p> <p>Koskontako bidea, 7-1. LESAKA T. 948 63 54 58</p>

ZUBIETA-ITUREN

GIZARTEA → ANIMALIA HILEN ERABILERAZ

Inauterien itxura faltsua eman dela salatu dute bi udalek

Nahiz eta antolaketan parte ez hartu, animalien babesari buruz indarrean dagoen araudia betetzea zainduko dutela adierazi dute

TTIPI-TTAPA/F. ETXEKOLONEA

Nafarroako Gobernuak 34/2009 Foru Dekretuak deklaratu zituen Iturengo eta Zubietako inauteriak interes kulturalako ondasun inmateriala. Ondoren, Viánako Printzea Erakundeak eta Turismo Kontseilariaren 21/2011 Foru Aginduek, martxoaren 3koa, adierazi zuen Nafarroako Interes Turistikoko Festa direla. Aurtengo inauterietako portaera bakan batzuk piztu duten erantzun eta erreklamazioen aurrean, Iturengo eta Zubietako Udalek prentsa-oharra karrikaratu dute. Nahiz eta ez duten ospakizunaren antolakuntzan eta finantzaketan parte hartzen, «beraien eskume-

nen barrenean animalien babesari buruz indarrean dagoen araudia betetzea zainduko dutela adierazi dute» eta aldi berean, «irudien erabilera interesatu eta manipulatuarekin, inauterien itxura faltsua» eman dela salatu dute.

Mari Jose Bereau eta Ernesto Dominguez, Ituren eta Zubietako alkateek sinatutako idatzizko dienez, «Inauteria da kultur espresio herrikoia bat eta bi dira haren benetazko protagonistak: *joaldunak* eta *mozorroak*. Iturengo eta Zubietako Udalek ez dute ospakizunaren antolakuntzan nahiz finantzaketan parte hartzen».

Oharrak dioenez, «animalia hilak erakustea ez dago jaiaren ondare-kulturalaren baitan eta Udalak erabilera horren aurka daude. Gainera, konpromisoa hartzen dute animalien babesari buruz indarrean dagoen araudiaren betetzea zaintzeko; betiere, bere eskumenen esparruan eta esku dauzkaten baliabideekin».

Aldi berean, Ituren eta Zubietako Udalek ez dute onartzen «zenbait pertsona zein talde animalistak sare sozialetan eta agiritan egin



UTZITAKO ARGAZKIA

Animalien babesari buruzko araudia zaintzen saiatuko dira bi Udalak, beraien eskumenen barrenean, ez baitira inauterien antolatzaileak ezta laguntzaileak ere.

duten irudien erabilera interesatu eta manipulatu aurreko urteetako eta beste herrietako jaietako argazkiak sartuz-, itxura faltsu hau ematea helburu: ospakizunaren muina osatzen duela hilotz, odol eta erraien akelarre baten».

Bi herri hauetako bizilagunei zuzenduta, sare sozialetan argitaratu eta Udaletxetara bidalitako gorroto adierazpen, irain eta mehatzu guztiak gaitzetsi dituzte Ituren eta Zubietako Udalek eta haien aurka, bidezko lege-ekintzak abiaraztea aztertzen ari dira.

Aipatzekoa da, gai honetaz aritzeko eta informazioa emateko, Zubietako udalak herritarrekin bilera deitua zuela joan den ostiralean.

FLASH

Emakumearen Eguneko afaria

Emakumearen Egunaren harira, larunbatean, martxoaren 11n, emakumeen afaria egingen dute Herriko Ostatuan. Aurretik, 19:00etan udalak *Fatima* filma eskainiko du eskolan.

Buruhandi tailerra martxoaren 13an hasi

Martxoaren 13tik aurrera, astelehenetan egingen dute buruhandi tailerra arratsaldean eskolan. Guztira hamar saio izanen dira. Ines Gereka eta Amaia Zinkunegik emanen dute eta hamahiru lagunek eman dute izena.

Errigora saskiak

Martxoaren 1etik 14ra beste kanpaina bat hasi da: oliba olio, kontserbak... eskatzeko. Eskatzen duenak olio apirilaren hasieran ailegatuko zaio eta kontserbak ekain hasieran. Iker Gorosterrazu eta Alix Gerekarik galdetu behar zaio edo Herriko Ostatuan uzten ahal da mandatua.

Malerreka kantuz Korrikarekin bat

Martxoaren 4an Zubietan egin zen Malerreka Kantuz eta aldi honetan, Korrika Kulturalarekin bat egin du. Kantari ibili ondotik, Zubietako ostatuan bazkaria izan zuten.

EZKONTZA gehigarria

Eguzkia goxatzen hasi orduko, datozen hilabeteetako hitzorduei begira hasten gara eta ezkontzak ageriko dira askoren egutegietan. Ezkongaiak edo gonbidatuak izan, hitzordu garrantzitsua izaten da eta asko dira lotu beharreko kontuak. Datozen orrialdeetan dituzue gomen-dio eta proposamen batzuk, ezkontza eguna ahaztezi-na izan dadin!

GIZONEZKOAK

DOTOREZIA NAGUSI

Gizonezkoen janzkeraz hitz egiten hasitakoan, ezinbestean aipatu behar dira trajeak. Gizonezko gehienek, aukera horixe egiten baitute ezkontza egunerako. Aurtengoan ere, gris eta beltzarekin batera, kolore urdina nabarmenduko da eta ausartenean, jantzi berde eta granateak ere izanen dituzte aukeran. Estantpatuak eta oihal motadunak ere tokia irabazten ari dira bai jantzi eta baita osagarrietan ere.



ROY ROBSON
RAMON SANJURJO



RAMON SANJURJO



RAMON SANJURJO



Hitzordua hartu behar da:

43, chemin de Sopite 64700 Hendaia • T. 00 33 675 388 277
lapetitemarieedesopite@orange.fr • www.lapetitemarieedesopite.com



Andregaiantzako soineko diseinatzailea
Zure gustu eta neurria eskuz egindako soinekoak



D-BLANCO

Charo Ruiz
DESIGN

Moda Ibiza Fashion



633 181 236


Zarautz etorb. 90, Lorea
DONOSTIA
www.d-blanco.es

Emakumeen jantziak

ISILPEAN GORDETZEN DEN SEKRETUA

Emaztegiaren soinekoa neurrira egindako jantzi berezia izaten da, mimoz josia. Behin bakarrik jantziko dela jakiteak, esanahi berezia ematen dio eta horregatik, egindako aukeraketaekin ziur egon nahi izaten dute emaztegiak. Batzuek hasieratik argi izaten dute eta bertzei gehixeago kostatzen zaie, baina milaka diseinu daudenez aukeran, bakoitzak topatzen du berea. Aukeraketa horretan laguntzeko, denboraldiko tendentziak zeintzuk diren jakitea lagungarria izaten da gehienentzat.

lazko joerari eutsiz, aurten ere, **bizkarraldeak** hartuko du garrantzia; **tatuaje itxurako** diseinuak, **harribitxiekin** apaindutakoak, **bizkarraldea** agerian uzten dutenak... dira diseinatzaileen proposamenetako batzuk eta horregatik, adituek diote ezkontzabeloak alde batera uzteko garaia dela. **Printzesa itxurako jantziak** beti bezain presente jarraitzen dute baina geroz eta gehiago dira, **soineko arinak**, **tunika itxurakoak** edo **bi piezaz osatutakoak** nahiago izaten dituztenak. Garai bateko moldeak apurtuz, emaitza dotore eta berezia lortzen dute horrela.



Irurita eta Elizondo artean kokatua dago. Lorategi zabala eta terraza desberdinak ditu, ongi-etorri koktelak eskaintzeko ezin hobekak. Bazkaria berriz, jangela ederrean egin liteke edo kanpoko lorategian jartzen dituzten jaima berezietan.

Bikoteak hala eskatuz gero, gonbidatuei harrera egiteko ezkontza aurreko ekitaldiak ere prestatzen dituzte. Gainera, gonbidatuek hotelean ostatu hartzeko aukera ere izanen dute: 84 logela bikoitz, jatetxea, erretegia, kafetegia, igerileku pribatuak eta beste beste zenbait zerbitzu izanen dituzte eskura, une bakoitzaz gozatu dezaten.

Gainera, ezkongaien menua aukeratzeko orduan langile espezializatuen aholkuak jasotzeko aukera izanen dute momentu oro. Maher, ospe eta prestigio handiko enpresa, arduratzen da zerbitzuaz eta edozein zalantza eta eskaera bereziri erantzuteko bitartekoak dituzte.

Hotel Baztan
606 40 78 85 / info@hotelbaztan.com
Barrio Etxerri, s/n, 31700 Elizondo, Navarra
www.hotelbaztan.com





ANDREGAIENTZAKO ZERBITZU OSOA
Ile-apaindegia
Aurpegi tratamenduak
Gorputz tratamenduak
Manikura
Pedikura | Makillajea

Amaya Picabea
CENTRO DE ESTILISMO E IMAGEN

Ameztiá · DONEZTEBE · 948 450 163 · centroamaya@zarbo.net

2017ko EZKONTZETARAKO ESKAINTZA
EZKONTZA OPARIAK EROSITA AUTOKO LOREAK OPARI



Andregaien erramuetan espezialistak • Elizen dekorazioa
Serpenti kanoiak • Ezkontza oparietan aukera zabala
Ilerako apaingarriak • Arrak • Ligak • Gonbidapenak

NARBARTE • T. 948 59 22 00 • www.gardenesther.com

Ezkontza bakoitza...



IRIS
FLORISTERIA
LORENDIA

...berezia da guretzat

Jaime Urrutia 21 | Tel. 948 58 10 53 | ELIZONDO



Estetika

NORBERAREN EDERTASUNA AZALERATUZ

Janzkerarekin batera, orrazkera eta makillajea erabakigarriak izaten dira. Denean bezala, neurria hartzen jakitea da garrantzitsuenena. Ezpain gorriak gustuko badituzu, zergatik ez dituzu hala margotuko? Ilea solte eramaten ohi-tua bazaude, zertan bildu? Ezkongai eroso eta seguru sentitzea da garrantzitsuenena, naturaltasunari eustea; look berezia osatu baina bakoitzaren estiloa mantentzea.



Lore sortak

ORIGINALTASUNAREN BILA

Andregairen lore-sorta, lorez lore diseinatzen den elementua da: bat eta bakarra. Hala, emaitza andregai bakoitzaren gustuetara egokitzen da. Hiru estilo hauek dira azken urteetan nagusitu direnak:

Bouquet-a: Forma borbildua dute eta 20-30 zentimetro inguru neurtzen dituzte. Lore-sorta hauetan batez ere, arrosak, krabelinak... erabili izan dira baina azken urteetan peoniek ere arrakasta handia izan dute.

Basoko loreak: Duela urte batzuk pentsaezina izanzen, baina gaur egun, neurri desberdinetako loreak oliba hosto, erramu eta eukalipto landareekin nahastea moda-modan dago.

Asimetrikoak: Tamaina eta mota desberdinetako loreak nahasiz osatzen dira. Azken orduan osatutako lore-sorta informala dirudi, baina lore bakoitza ongi aukeratua izaten da, hari bati segiz.

Makillajea aukeratzeko orduan

orrazkera eta jantziak zeresan handia dute. Garrantzitsua da hiru elementuen arteko oreka lortzea. Makillaje deigarria aukeratzeko dutenei orrazketa informal eta sinpleagoa eramatea gomendatzen zaie eta orrazkera oso landua bada, makillaje naturalagoa izatea. Adituen proposamenen artean, muturreko joerak nahasten dira, kolore neutroak, arrosa eta marroixkak gomendatzen dituztenak eta ezpain eta begiradari indarra ematea aholkatzen dutenak.

Orrazkeretan berriz,

bada errepikatzen den elementu bat: txirikorda. Handiak, txikiak, bikoitzak, estuak, lodiak... forma eta tamaina desberdinetakoak ikusiko ditugu. Orrazkeraren elementu nagusia izan litezke edo ilea solte darmatenei ukitu berezia gehitu diena. Horrekin batera, ile-bildu informalak eta ilea solte, ondulatuta, eramatea ere moda modan dago. Bata edo bestea aukeratzeko, orrazkera desberdinak probatzea komeni da, aunitzetan buruan dugun ideia bat gero eginda ikusitakoan asko aldatzen baita.



Irene
ileapaindegia

610 256 557 · 948 638 186 · LESAKA

Aurpegiako tratameduak
Mesoterapia · Gorputzerako tratamenduak
Erlaxatzeko masajeak · Drainatze linfatikoa
Faguterapia - LPG · Presoterapia
Argizariarekin depilatzea · Befeiletako permanentea
Manikura · Pedikura · Makillajea

Arma
ESTETIKA

Altzate 33 BERA · 948 63 09 04


DUUE
ileapaindegia | estetika zentroa
948 631 493
Julio Caro Baroja | Bera
astearte eta asteazkena 09:00-17:00
osteguna 09:00-17:30
ostirala 10:00-19:00
larunbata 08:30-13:30

Beauty Corner

bat jartzea proposatzen dizugu. Zuk eta zure gonbidatuek makillaje eta ileapaindegi zerbitzuaz gozatu dezazuen. Zerbitzu eskusiboa da eta gure lantaldeko profesionalak zuen eskura egonen dira makillaje eta orrazkerari azken ukituak emateko.

Ezustekoa eman iezaiezu! Apain-apain aterako dira argazki guztietan!






Zaldúa argazkilariak

Elizondo - Doneztebe www.fotozaldua.com
948 580 491 948 450 364



- ARGAZKI PAREGABEAK
ETA DESBERDINAK
- EZKONTZA ZERBITZUETAN
AUKERA ZABALA
- MOMENTUAN
INPRIMATUTAKO ARGAZKIAK
- KONTSULTATUAN
KONPROMISORIK GABE



-Argazki sozialak
-Publizitatea
-Ekitaldiak
-Ezkontzetan
espezialistak

www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com

Fernando Vergara Avda. Letxunborro 100-2ªdrcha 20305-Iruin
fotógrafo 943 840 113 - 647 930 484



Argazkilariak OROITZAPENAK BETIRAKO GORDEZ

Argazkietan biltzen dira ezkontza eguneko bizipen guztiak: irribarre, urduritasun eta malkoak. Egun horretako oroitzapenak betirako gordetzeko modua dira argazkiak eta horregatik, argazkilaria nor izango den aukeratzearabaki garrantzitsua izaten da. Garai bateko argazkiak alde batera geratu dira eta orain, ezkongaiak ahalik eta modurik **naturalean** agertzea izaten da helburua. Bikotearen gustuko txokoren batera joan, egoera berexiak irudikatu, orrazten edo jantzen ari direlarik argazkiak atera... asko dira erabiltzen diren teknikak.

Ezkontza eguneko argazkiez gain, **ezkontza aurretik edota ondoren** argazki sesioak egiteko ohitura ere zabaltzen ari da. Ingu-rune lasai batean, ordutegirik gabe, patxadaz... aritzeko aukera dutenez joko gehiago ematen dute argazkiek. Aurretik ateratakoak gainera, gonbidapenak egiteko ere erabil ditzakegu. Eta ondoren ateratzen direnatan berriz, jantziak zikintzeko ikara guxtiago izaten dute ezkongaiak, batzuk itsasoko uretan bainatzeraino.



[Alex Gaztelumendi.com](http://AlexGaztelumendi.com)
ARGAZKILARIK

615 747 028
WWW.ALEXGAZTELUMENDI.COM



3, 2, 1... KLIK!

Argazkiak atera bitartean, nork esan du ezin dela ongi pasa? Lotsak alde batera utzi eta erokeriak egiteko aukera eskaintzen dute Photocallek. Horretarako, txoko batean bibote, betaurreko, kapela, pelukak... eta argazki kamera bat jartzea nahikoa da. Argazkilariei aukera hau gehitzeko eskatu edo polaroid kamera bat jarri liteke, argazkia berehala inprimatzeko aukera probetuz. Oroitzapen polita eta berexia da eta argazkiak gerora ikusitakoan seguru barrerik ez dela faltako!



TELLETXEA
948 637 281 ARGAZKIAK LESAKA

Detaile ttiki guztien garrantzia



Ezkontza-gonbidapen pertsonalizatuak egiten ditugu. Eredu ugari dituzue aukeran.



ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE

Jatetxeentzat

zure bezeroaren ezkontzako menuak diseinatu eta inprimatzen ditugu. Nahi duzun formatu, diseinu eta kopurua.



Zure ezkontza gonbidapena personalizatua.

GONBIDAPENAK

ORIGARRIAK

amaia@mailpostabuzoneos.com

Mailposta Buzoneos

Tel. 686 747 713
Altzegorea * NARBATE

Zuk ere egin dezakezu...

...baina zer-bait gehiago nahi baduzu...

bortzirudi
Diseinu eta publizitate tailerra • Taller de diseño y publicidad

Ander eta Gorane

Aukerak, aholkuak eta prezio ezin hobeak eskeintzen dizkizugu!

100 gonbidapen 35 euro

bortzirudi@gmail.com • Bera • 948 631 521

Kalash JOYEROS

DISEINU PERTSONALIZATUAK.
ZURE IDEIA "BITXI" BIHURTUKO DUGU.
ETORRI ETA IKUSI

Banataile ofiziala:

VICEROY CASIO CITIZEN ECO-DRIVE

Kanttonberri, 6 BERA | 948 630 751
Merkatarien Karrika, 7 DONEZTEBE | 948 451 519

Gonbidapenak

ALBISTEA EMATEKO

MILAKA AUKERA

ZER ETA NOLA ESAN? Horixe izaten da ezkontza gonbidapenak aukeratzeko orduan egin beharreko galdera. Hitzek bezainbesteko garrantzia baitute ezkontza gonbidapenetan diseinuak eta aukeratzeko den euskarriak. Asko dira gonbidapena hutsetik sortzen duten enpresak: kolorea, irudiak, konposizioa, materiala, tipografia... guztia bezeroek aukeratuz. Modako joeren artean akuarelaz margotutakoak, kraft paperean egindakoak, puzzle itxurakoak, origami teknika baliatzen dutenak eta irudi geometrikoak dituztenak nagusitzen dira.



Bitxiak

UKITU BEREZIA, ESANAHI BEREZIA

Ezkontza aipatu orduko, erantzunak datorzkigu burura.

Ez dira, ordea, egun berezi horretan ezkongaiak soinean daramatzaten bitxi bakarrak. Erloju dotore bat, belarritakoak edota esku-muturrekoak... ezkongaien itxura osatzeko ezinbestekoak dira. Merkatuan denetarik aurki liteke eta bestela, bitxi pertsonalatuak egiteko aukera ere bitxidenda aunitzek eskaintzen dute. Oparitzeko ere, detalle polita dira, egun horretan soinean eramaten diren elementuek esanahi berezia izaten dutelako momentuan eta baita etorkizunean ere.





JAUREGIA


S. XV - XVIII



Irurita (Baztan)
NAVARRA



OSPAKIZUNET ARAKO
JAUREGI BAT ZURE ESKU
Ezkontzak eta ospakizunak



31730 IRURITA | T. 948 452 056 | 676 163 702
info@palaciojauregia.com | www.palaciojauregia.com



Halconbidaiak.com

Eztegara Pasealekua, 30 • BERA
T. 948 630 451 F. 948 630 641

14 URTEZ BIDAIARIK ONENAK
PREZIORIK ONENETAN ESKAINIZ

HITZORDUA AURREZ ESKATUTA,
ITXARON BEHARRIK EZ

Bidaia

MUNDUA ESKURA

Maleta egin eta aire! munduko txokoren batera ihes egitearekin ametsetan ariko dira dagoeneko ezkongai ugari. Bidaia antolatzeke orduan milaka dira aukerak: atsedeen bila edo abentura gosez, kultura berriak deskubritu edo gugandik hurbil daudenak gehiago ezagutzeko... mundua jartzen dute ezkongaien eskura bidaia-agentziek. Agentziek aurrez prestatutako bidaien artetik bat aukeratzea zen duela gutxira arte ohikoena. Orain, ordea, amestutako bidaia neurrira osatzen dute gehienek. Oporraldiko datak ezkontza eguna zehaztu orduko jakin ohi direnez, bidaia patxadaz eta nahikoa denborarekin antolatzen hasteko aukera izaten da. Guztia ongi lotzea komeni da eta aseguruak hartzea ere ez dago soberan, ezustekorik egon ez dadin!



Musukatu, topa egin eta dantzatu

Ezkon-bidaia B-z hasten dira



#ViajarempiezaconB

Erreserbatu zuen ezkon-bidaia eta aprobetxatu gure abantailak.

%7ko
DESKONTUA

edo **%5ko** +
DESKONTUA

MALETA
SORTA
Salvador Bachiller-en
290€-ko balioa duena



1.200€tik 2.200€ra: Trolley handia.
2.201€tik 3.000€ra: Trolley handia eta trolley txikia.
3.001€tik aurrera: Sorta osoa.

Baldintzak kontsultatu.

BERA | Eztegara, 22 (Frontoia eta Merkaopariren ondoan) | 948 631 388 | 600 76 72 22 | bera@bthetravelbrand.com

B the travel brand



Iruñea - Irun errep. 60km
31760 ETXALAR
T. 948 635 000 | F. 948 635 263
info@etxalar.com
www.etxalar.com



EZKONTZA ZIBILAK

ORAIN AZKUA ARETO BERRIAN EZKONTZA ZIBILAK OSPATZEKO AUKERA ESKAINTZEN DIZUGU



**EGUN OSOA, INORA MUGITU GABE,
BERTAN PASA DEZAKEZUE:
ZEREMONIA, BANKTEA
ETA DANTZALDIA**

- 275 lagunentzako jantokia
- Ezkontzetako menu aldagarria
- Xoko politak bai kanpoan baita barruan ere
- Eguraldi onarekin musika terrazan
- Ongi etorri koktela
- Lunch afariak
- Gaua hotelean pasatzeko prezio bereziak taldeentzako
- SUITA OPARITZEN DUGU EZKONTZA GAUEAN




Mirador

de YRISARRI

Mendien magalean, zuen ametsetako ezkontza ospatzeko luxuzko tokia. Ikuspegi paregabeaz gozatuz kanpoaldean aperitiboa hartzeko aukera. Domotizatutako areto ederra, espazio irekia, zutaberik gabea. Gonbidatuek gure etxoletan, jauregian edo aterpetxean ostatu hartzeko aukera dute.



www.miradordeyrisarri.com / info@miradordeyrisarri.com / 948 92 89 22



MARTA ÁLVAREZ / "Bodas para Dummies" liburuaren egilea

Mirador de Yrisarri ospatzen diren ezkontzetan ukitu berezia nabari da. Izan ere, Marta Álvarezek, wedding planer ezagunak eta 'Bodas para Dummies' liburuaren egileak, du gune hau kudeatzeko ardura, xehetasun guztiak mimoz zainduz.

Jatetxeak

GOZATZEKO TENOREA



Hasierako urduritasun eta emozioak pasata, jatetxera iritsi eta gozamina hasten da. Bertan igarotzen dira ezkontza eguneko ordu gehienak eta tokia, jakiak, dekorazioa... mimoz zaindu beharreko kontuak izaten dira. Horregatik, jatetxea aukeratzea izaten da ezkongaien lehenbiziko zereginetako bat. Kokapena, esperientzia, tokia, zerbitzua... kontuan hartu eta tokiak bertatik bertara bisitatzeko oso komenigarria izaten da, zalantzak argitu eta eskaintza zuzenean kontsultatzeko. Menuaz hitz egiteko ere probexu liteke aukera, menu irekiak eskaintzen dituztenez, bakoitzaren prezio eta gustuetara gehien egokitzen dena aukeratzeko modua izaten baita.

Bereizgarriak

Ongi-etorri koktela eskaintzeko txokoa, dantzaldia nahi adina luzetzeko aukera, ikuspegia, lorategia... jantokiak bezain besteko garrantzia dute inguruak eta baita jatetxeek eskaintzen dituzten bestelako zerbitzuek ere. Iluntzean, gonbidatuei mokadutxo bat eskaintzeko aukera jatetxe gehienetan dute eta pintxo

tradizionalez gain, txokolatezko iturriak, goxoki eta fruta frexkoekin osatutako mahaia... artelanak ikus litezke.



Zure ezkontza egunean, otordurik berexiena



BEOLA
Posada-Palacio



Nagusia, 1 | ALMANDOZ | T. 948 585 300
beola@beola.com www.beola.com

Ezkontzetarako informazioa
T. 686 152 917



ZUBIONDO

Jatetxea sagardotegia



- 350,160 eta 40 lagunendako hiru jangela
- Bazkalondoa nahi bertze luzatzeko aukera
- Auto eta autobusendako aparkalekua
- Haurrendako jolasparkea
- Koktelarako leku aproposa

Eskatu gure ezkontzetako menua!!

Alasta Karrika BERA • T. 948 625 472
www.zubiondojatetxea.com



Foruen plaza - BERA | T. 948 62 55 40 | T. 948 625 542
www.hotelchurrut.com

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g 31780 Bera - Nafarroa
t. 948 631 106 - 948 630 967
w. www.zalain.info e. sainz.amaia@gmail.com

Bi jangela:

- Beheko solairuan 50 lagunentzako
- Goiko solairuan 180 lagunentzako

Zerbitzuak:

- * Loreekin dekorazioa, menuen inprimaketa, (prezioaren barruan).
- Luntxa edo berendua · Terraza.

Menu ezberdinak. Galdetu konpromisorik gabe.





LA BAZTANESA
ELIZONDO • T-F 948 580 129
IRUÑEA • T 948 222 223
autobuses@labaztanesa.com

JOXE ANGEL
AKORDEOLARIA

BESTAK
INAUTERIAK
KINTO BESTAK
EZKONTZAK

600 476 055



MIKEL SALABERRI

*Herriko bestak...
Ezkontzak...
Kinto bestak...
Inauteriak...*



T. 630 40 20 39
mikelteklas@hotmail.com

endaradeejays **edj's**


ZURE MUSIKA
Ezkontzak, Ekitaldiak, Bestak...

Info gehiago: 605 762 880
www.endaradeejays.com



Garraio zerbitzua

JOAN-ETORRIA KEZKARIK GABE



Ezkontza egun berezia izan ohi da ezkongaietzat, noski, baina baita gonbidatuentzat ere. Horregatik, egunak eskatzen dituen joan-etorri guztiak eroso eta seguru egin ditzaten, geroz eta gehiago dira autobus zerbitzua kontratatzen duten ezkon-

gaiak. Garaiz ibili eta ordutegia, ibilbidea, autobusaren tamaina... xehetasun guztiak lotuta uztea komeni da.

Musika

MOMENTU BAKOITZA KANTU BATEKIN LOTUZ

Zer litzateke festa bat musikarik gabe? Gauza jakina da, musikarik momentu bereziak are bereziago bihurtzeko gaitasuna duela. Garai batean, otordua bukatu ondotik aditzen ziren lehenbiziko akordeak; gaur egun, ordea, musikaren presentzia ospakizun osoan nabarmentzen da. Jatetxean sartzerako momentuan, otorduan opariak banatzerakoan eta baita plater eta plater artean ere. Jatetxea arduratzen da batzuetan musikariak kontratatzeaz, baina gehienetan ezkongaiak egiten dute aukeraketa. Gurean moda modan dago iluntzera arte akordeoilariak aritu eta ondoren, Djak kontratatzea. Aitagarinarreba dantzan jarriko duen mariatxia, gerri eta aldakak mugiarazteko udako kantua, balada erromantikoa... ongi pasatzea ziurtatuta dago!



MODESTO
akordeolaria

BESTAK · INAUTERIAK
EZKONTZAK · KINTO BESTAK

686 557 758
948 451 725

MODESTO

Toki paregabea



Ongi etorri koktela

Ezkontza
zibiletarako ere
prestatzen dugu
toki polit hau



Bazkaria



Zure ezkontza zure gustura diseinatuko dugu!

Urgain Hotela - Jatetxea

- Tel. 948 59 20 63 - reservas@hotelurgain.com -

www.hotelurgain.com

URROZ

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 17AN ETA 18AN

Giro onean joan dira inauteriak aurten ere

Gazteak eta haurrak etxez etxe ibili ziren

Hurrengo ateraldia sagardotegira izanen dute gazteek larunbatean

ren eta afalondo luzea izan zen. Hurrengo egunean, larunbata, eguraldi onak lagundurik, goizean gazte koadrila bildu eta baserriz baseri abiatu ziren, trikixita eta pandero doinuez alaiturik. Haurrak berriz, arratsaldean plazan elkartu eta etxez etxe ibili ziren herriari buelta ematen. Kuadrilla polita bildu ziren hauek ere.

Martxoaren 11n sagardotegira

Herriko gazteek antolatu duten hurrengo ateraldia, martxoaren 11n izanen da sagardo-

Jaione ARIZTEGI

Urtero bezala, ortziralarekin egiten den afa-riarekin hasi ziren inauteriak Urrozen. Afarian 35 lagun inguru bildu zi-



ARGAZKIAK: JOSUNE LAZKANOK UTZIAK

Inauterietako larunbatean, haurrak plazan bildu eta etxez etxe ibili ziren. Gazteak baserriz baseri ibili ziren. Argazkian, urroztar ttikienarekin, Ainhize Babazerekin ageri dira.

tegira. Eguerdiko ordu batean abiatu eta goi-

zeko hiruretan eginen da buelta. Autobusa an-

tolatu dute joan-etorria egiteko.

BEINTZA-LABAIEN

GIZARTEA → OTSAILAREN 16 ETA 17AN

Xorroxinen irrati ibiltarian gogotsu aritu dira ikasleak

Esperientzia polita izan dela adierazi dute ahobatez

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 16 eta 17an Xorroxinen Irrati Ibiltaria programan parte hartu zuten Beintza-



UTZITAKO ARGAZKIA

Eskolako neska-mutikoak eta irakaslea, Xorroxinen irrati ibiltarian.

Labaiengo eskolako ikasleek. Eskolatik bi irratsaio egin zituzten

eta Beintzan eta Labaienen entzun zen. 106.5FM frekuentzian.

«Oso esperientzia polita izan da», adierazi dute neska-mutikoek.

GIZARTEA → OTSAILAREN 26AN

Zuhaitz landaketa egin dute aurten ere

Mattin LARRALDE

Lehengo urtean bezala aurten ere Udalak eta Guraso Elkarteak elkarrekin zuhaitz landaketa egin dute. Otsailaren 26an hurrek gurasoekin landaketa egin zuten Bostorratz mendian eta gero merezitako gosaria izan zuten.

Traste handiak

Traste handiak atezten ari dira beste zabor arruntak biltzen diren lekura. Aspalditik

deia egin zen ez botatzeko tresna handi horiek, telefono zenbaki bat ere jarri zen (672 045734) eta etxera etortzen dira bila. Errespetu bat izan dezagun ama lurrarekin.

Iturrian zuhaitzak

Herri sarreran dagoen iturrian lau zuhaitz handi landatu dituzte mahaiaren ondoan, udan itzal emateko moduan. Lau zuhaitz mota ezberdin jarri dituzte.



ARGAZKIAK: MATTIN LARRALDE

Bostorratz mendian zuhaitz landaketa egin dute aurten ere.

ETXEBIZITZA BERRIAK DONEZTEBE

2 eta 3 gelako etxebizitzak terrazarekin




KOKAPENA
MOURGUES IBILBIDEA



135.000€tik aurrera
Informa zaitez

- ✓ Lehenengo solairuak TERRAZA-SOLARIUM-arekin
- ✓ Ekialde, hegoalde eta mendebalderantz begira
- ✓ Goi mailako aislamendu termiko-akustikoa eta efizientzia energetiko goren
- ✓ Berogailu sistema mistoa galdara eta AEROTHERMAL energia berriztagarriarekin
- ✓ Trastelekua eta garajea
- ✓ Sukalde ornitua (aukeran)

Lokal komertzialak ere baditugu!



EZKAIN ERAIKUNTZAK
Inzakardi kalea z/g | DONEZTEBE

629 951 170



SALDIAS

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 25EAN

Poliki joan da
inaute egunaCarolinak eta
Ibanek irabazi
dute musean

Markel LIZASOAIN

Inaute eguna mus txapelketarekin hasi zen. 10:30etan elkar-tzeko esana zen, eta haurrak eta gazteak han ziren ordurako berantetsirik. Pixkan-pixkan jendea azaldu zen, baita Lizarralde eta Muñoa bertsolariak ere, solasaren jokorako ez ezik karta jokorako ere etorriak. Trofeoak Tantara iturgintzak banatu zizkien Carolina eta Iban bikoteari. Gerorako, bazkaltzera jarri zen jendea, eta maiz ez elkartuagatik giro franko goxoa harrapatu zuten janzaleek. Ustekabeko enkontru zaharrak ere izan ziren mahaiaren bueltan. Eta kafearen ordurako, jendea ongi horniturik, zuzen azaldu ziren Oihana trikitilariak. Bertso eta kantu artean 17:00 aldera arte aritu ondotik, karrika erron-

dara zutitu ziren denak. Ilunabar arte ibili ziren desfilean atariz atari bakoitza bere rolean sarturik. Afalordurako ostua betea zen, eta jaten hasi aurretik disfrazik onena aukeratu zuten bertsolariak. Afalondoko saioan, berriz, sorpresa txiki bat ere izan zen, Ugaitzek bertso egoki pare bat botu baitzuen egunari errepasoa emateko. *Goiz-goiztikan musean kartak txukunak zin, Julen eta Ibaiek txikorikan ezin, Aimar eskopetakin iduri du izin, Alain eta Koxkorrok purua ezin egin.*

Bost patxaran botella zein da mozkorrena, Ahinitzen mozorroa dela ederrena, doble Oihana, Unai eta Anderrena, saio ederra zaigu gaurkoa zuena.

Herri guziak borondate ona azaldu du, eta denari eskerrak atera dira kontuak zuzen.



ARGAZKIAK: MAITE OTXANTRENEKOA

Giro polita izan da inauterietan, bai bertsolarien karrika errondan, bai mus txapelketan, baita mahai inguruan ere.

erran

Mendialdeko Albisteak
TTIPI-TTAPA aldizkaria eta XORROXIN irratiak
elkarrekin eskuko telefonoan eta tabletan

e ERABILI ETA
ZABALDU EDUKIAK



- ERRAN.EUS web bertsioarekin denbora errealean sinkronizatua.
- ZU ZEU KAZETARI: nahi dituzun informazio eta argazkiak bidaltzeko aukera ematen dizu.
- PERTSONALIZATZEKO AUKERA nahi den gai eta herrien araberrako bilaketak egiteko aukerarekin.

DESKARGATU APLIKAZIOA DOAN

Get it on
Google play

Download on the
App Store



GIZARTEA → NAFARROAKO GOBERNUAK ETA NASERTIC-EK, CEDERNA GARALURREKIN ELKARLANEAN GARATUA

Mendialdea banda zabal ultralasteraz hornitzeko egitasmoa azaldu dute

Eskualdean, Leitza-Areso eta Berakoa daude aurreikusitako 2018an egiteko eta Malerreka (Doneztebe eta Zubieta artean) eta Etxalarkoa erreserban



UTZITAKO ARGAZKIA

Leitza-Aresorako aurre ikusia duten sarea.

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak eta Nasertic-ek, Cederna Garalur Elkartearekin lankidetzan, haibat bilera egin dituzte udalekin Toki Inbertsioetarako Planean (TIP) banda zabala hedatzeko aurreikusitako jardueren xehetasun tekniko eta administratibo berri emateko.

Neurrien xedea da udalerriak kanalizazio baten bitartez lotzea, eta horrela 1.500etik gorako herrien agregazio-

ak sortzea; kopuru hau hartzen da landa-eremuetan operadoreak hedatzeko errentagarritasuneko gutxienezko atalasea. Denetara, 2017-2019 aldian, 9 esku-hartze proposatu dira Nafarroako Mendialderako, gehi beste bost erreserban; denetara 6,6 milioi euro. Eskuhartze horiek finantzazioa dute: % 80 Nafarroako Gobernuak pa-

ratuko du, eta gainerako % 20 sustatzaile izanen diren udalek jarri beharko dute.

2018rako aurreikusitako adarren artean, Leitza-Aresokoa (132.000 euroko inbertsioa) dago, eta 2019rako Berakoa (30.800 euroko inbertsioa). Erreserban daude, berriz, Malerreka (Doneztebe-Elgorriaga-Aurtitz-Zubieta-Ituren-Dona-

maria, 272.800 euro) eta Etxalarko adarra (145.200 euro).

Proposatu diren eskualde-sareak Nafarroako Gobernuaren datu-sare nagusiaren inguruan hedatuko dira, eta zuntz optikoa sartzeko eta eremurik bakan duenetan irrati-estaldura hedatzeko esku-hartzeak aurreikusi dira. Bereziki adierazgarriak dira 2019rako aurreikusi-

diren 4 adarrak, ekialdeko Pirinioak lotzen dituenak.

Nafarroako Gobernuarentzat funtsezkoa da esku-hartze hau lurraldea sozialki eta ekonomikoki egituratzeko, zerbitzua ematen baitie enpresei, herritarrei eta zerbitzu publikoei. Euro-pako Batzordearen eskakizunen arabera, sare berriek gutxienez 30 Mb/s-ko abiadura emanen dute; hau da, gaur egun Mendialde gehienan duguna baino 10 aldiz azkarragoa.

Jarduera finalista ez bada ere, alegia ez du zuntz optikoa pasatzen, etorkizunean operadore pribatuen zuntz optiko hori iristea erraztuko du, obra zibila operadoreen sare-hedapeneran % 80 baita.

Udalek Gobernuari jakinarazi beharko diote jarduerekin bat egiteko asmorik ote dute ala ez, baita zein udal izanen den bitartekaria obra egiteko.

NAZIOARTEKO ELKARTASUNA

30. urteurrenean ere brigada kanpaina antolatu du Askapenak

TTIPI-TTAPA

Askapena 1987an Iraultza Sandinistaren epeletan sorturiko euskal erakunde internazionalista da. «Herrion arteko joan-etorriko elkartasuna bultzatzen dugu, Euskal Herria eta gainerako herri langile eta zapalduetara zubiak eraikiz», diote.

Aurtengo brigada kanpaina, azken urteotako dinamikarekin jarraitzea da beraien asmoa. Alde batetik, Abya Yalako prozesuen jarraipena egiten dute, hauek bizi duten egoera ezegonkorari aurre egin eta Argentina/Uruguai, Boli-

bia, Brasil, Mexiko eta Venezuelan dauden erresistentzia esperientziak ezagutzeko. Hauei Kubarako brigada gehitu zaie aurtengoan.

Bertzalde, Europan, Herrialde Katalanetako brigadarekin batera, berrikuntza gisa, Britainia-ZAD eta Italiako brigadak ere burutuko dituzte, Kapitalaren Europan herri zapalduetatik sortzen diren alternatibak ezagutarazteko.

Azkenik, urtero legez, Palestinara ere brigada izanen dute, sionismorik gabeko Euskal Herria sortze bidean palestinar erresistentzia ezagutu eta Euskal He-

rriari BDZ kanpaina zabaltzeko. 30. urteurren honetan Askapenatik borrokak uztartzen jarraitzeko asmo garbia dute, eta horrexegatik antolatu ditugu beste behin ere brigadak munduko prozesu emantzipatzaile ezberdinak ezagutu eta gerora Euskal Herrian ezagutzera emateko. «Horrela, Euskal Herriko internazionalista guztiei dei egiten diegu gurekin batera brigadetan parte hartu eta Euskal Herriko borrokak gainontzeko herrietako borrokekin uztartzeko».

Apirilaren 16an bukatuko da brigadatan izen-emateko epea.

LEITZA

GIZARTEA → UEMAK ETA ESKUALDEKO ZORTZI UDALEK, TARTEAN LEITZAKOAK

Pediatra euskalduna kontratatzeke eskaera egin diote Osasunbideari

Orain arteko pediatra badoanez une egokia dela argudiatuta

Juan Mari BARRIOLA

Eskaera ez da berria, baina egoera bai: orain dagoen pediatra beste zentro batera doanez ordezkoa kontratatu behar baitu Osasunbideak. Leitzako Osasun Zentroko erabiltzaileen eskaera izan da urtetan eta aldaketa datorrela ikusirik, eskaera bateratua egin diote Jose Fernando Domingezi, Osasunbideko arduradunari, Araitzi, Arano, Areso, Betelu, Goizuetza, Larraun, Leitza eta Lekunberriko Udalek eta UEMAKo ordezkariak. Euskaldunak dira zortzi udalerrri horiek eta horietako bost UEMAKo kideak dira. Horregatik, «pazientea ardatza de-



ARGAZKIA: UDALA

Osasunako futbol taldeko bi jokalariren bisita

Osasunako lehen taldeko bi jokalarik Leitzan izan ziren otsailaren 23an. Udaletxeko Batzar Aretoan. Unai eta Dabid Garcia jokalariek hitzaldia eman zuten azalduko jendearen aurrean gaztetxoek galderei erantzunak azaltzen. Urtero antolatzen da ekimen hau Udala eta Fundazioaren eskutik gazteen artean kirola zabaltzeko asmoarekin.

la kontuan hartuta, erabiltzaileen hizkuntza eskubideak errespetatzeko, pediatra euskalduna izatea eta horrela hizkuntza eskubideak bermatzea» eskatzen diote «aurkera duelarik pausoa ematea. Mediku eta pazientearen arteko harre-

manean hizkuntza funtsezkoa baita».

Ba al zenekien

Martxoaren 22an emanen diotela hasiera Ateka asteari. Ganbaran egindako Rokodromoa aurkeztuko dute eta eskaladaren inguruko bideo emanaldi eta hitzaldi bat ere antolatu dute. Horren ondotik, zazpi egunez ekitaldi ugari! Hurrengo alean izanen duzue guztien berri.

6.000 EURO BIDERATUKO DIRA PREBENTZIO KANPAINA ETA EKIMENETARAKO

Prebentzio batzordeak urteko plangintza zehaztu du

Juan Mari BARRIOLA

Prebentzio Batzordea Gizarte Zerbitzuen barruan antolatzen da eta Leitzako hainbat eragilek parte hartzen dute bertan, tartean, Udalak. Berriki 2016ko plangintzaren balorazioa egin dute eta 2017 urterako helburu eta ekintzak zehaztu dituzte. Aurten menpekotasunak saihestu eta sortu ditzaketan kalteak murrizteko asmoz, lau eremutan helburuak finkatu dituzte.

Familiei begira, gurasoentzako ikastaro eta hitzaldiak antolatuko dituzte etxean menpekotasun gaiei nola aurre egin jakiteko baliabideak izan ditzaten. Informazio eta aholkularitza guneak ere martxan jarraituko dituzte.

Hezkuntza arloan, eskola eta institutuarekin elkarlanean prebentzio programak bultzatu nahi

dituzte, gida bat eta sare sozialetan sentsibilizaziorako gune berezi bat sortuz. Horrekin batera Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat eskola laguntza antolatuko da eta irakasleei prebentzio gaien ingurua formazioa ere eskainiko zaie.

Hezkuntza ez formala ere kontuan hartu da plangintzan, hori dela eta gaztetxoei bideratutako aisialdiko hainbat ekimen antolatuko dira: ur festak, tailer desberdinak edo Gozamenez kanpaina. 2017ko beste helburuetako bat izanen da 14-16 urte arteko gaztetxoentzat Gazte Gunea bultzatzea.

Herri mailan eta helduei begira ere hainbat kanpaina egitea aurreikusten dute: alkohola, kontsumoa, joko arazoak eta tratua eta harreman onen inguruan.

FLASH

Garagardo festa martxoaren 11n

Torreak antolatuta, 14:30ean bazkaria izanen da, bazkal ostean kantaldia eta 23:00etan Deiedra taldearen kontzertua. Euskal Herrian ekoiztutako garagardo artisauak edateko aukera izanen da.

Udal-haureskolan matrikulazioa

Datorren ikasturterako aurre-matrikulazio epea irekita dago Itzaire haureskolan martxoaren 15era arte. Informazio gehiagorako idatzi (hur-eskola@leitza.net) edo deitu Udaletxera.

Bertso afaria martxoaren 18an

Gure Esku Dagok antolatuta, bertso afaria izanen da Jubi tabernan. Sebastian Lizaso eta Alaia Martin ariko dira kantuan. Sarrerak Maimurren eta Jubin eros litezke, 20 eurotan martxoaren 15era arte.

III. Energia jardunaldiak

Kontsumo taldeak eta Udalak elkarlanean antolatu dituzte martxoaren 16, 23 eta 29an izanen diren saioak, guztiak 19:00etan. Lehenbiziko hitzaldia Udaletxean izanen da eta Udalaren energia planaz ariko dira solasean Esetek eta Mikel Zabaleta, alkatea. Martxoaren 23an, Atekan *Zenbat energia dago hondakinen atzean? ekoiztu-bota-erre eredia ezbaian* hitzaldia eskainiko du Ainhoa Intxaurrendietak. Martxoaren 29an, Atekan burujabetza energetikoa eta egungo garraio ereduari buruz hitzaldia eskainiko du Sustrai eraikuntzako Xabier Zubialdek.

ZERBITZUA → UZTAILERA ARTE

Eskolaz kanpoko zaintza zerbitzua martxan da

Ainara Omaetxebarria izango da zaintzailea

Juana Mari SAIZAR

Aurreko aldizkarietan iragarri genuen, eskolan zaintza zerbitzua jartzekoa zutela eta dagoeneko martxan jarri dute. Lau pertsona aurkeztu ziren zaintzaile posturako eta Ainara Omaetxebarria, Sastizar landetxekoa, izan zen puntuaziorik altuena lortu zuena.

Eskola egunetan goizeko 8etatik 9etara eta 11:50etik 14:50era eskaintzen da zerbitzua. Egunero edota aurrez abisatuta, gurasoek beharra duten egun ba-

tean erabil litekeen zerbitzua da. Gainera, kontziliazioa errazteko, jai egun berezietan, aste santuak edo uztaila adibidez, ludoteka zerbitzua ere eskainiko da.

Lan deialdia

Udalak idazkari eta administratzailea kontratatzeko deialdia kaleratu berri du. Interesa dutenek martxoaren 10era arte izango dute izena emateko aukera. Aipatu behar da, lan baldintzak mantenduta, berrantolaketa baten ondorioz sortu direla bi lanpostu hauek eta Udalarentzat ez duela gaitzirik eragingo. Idazkaria lanaldi osoan ariko da lanean eta administraria lanaldi erdian.



Ba al zenekien

Emakumeen nazioarteko egunaren harira, martxoaren 10ean 'La fuente de la vida' pelikula eta afari autogestionatua antolatu direla. Zonaldeko emakume guztiak daude gonbidatuta.



ARGAZKIA: ESKOLAK UTZIA

Larrialdi zerbitzuetako sekretuak ezagutzeko aukera

Otsailaren 24an DYako 8 boluntario eta pedagogo bat etorri ziren eskolara bisitan eta bi anbulantzia ere ekarri zituzten. Egiten duten lana azaldu zieten ikasleei, anbulantzia barrutik erakusi eta erizainen eskularru pare bana ere oparitu zizkieten. Gainera larrialdietako 112 zenbakia ikasteko abesti bat ere erakutsi zieten.



ARGAZKIA: E. IRAOLA

Angel Oiarbideren hitzaldi interesgarria

Mendialdeko Gure Esku Dagok antolatuta otsailaren 24an hitzaldia eskaini zuen Angel Oiarbidek, Gure Esku Dago-ko bozeramaileak. Erabakitze eskubideaz, orain arte egindako bideaz eta etorkizuneko urratsei buruz aritu zen hitzketan eta bukaeran emozioak borborka jarri zituen bideo bat ikusteko aukera ere izan zuten bertaratu zirenek. Pena da ez zela jende askorik hurbildu, ea hurrengoan animatu eta parte-hartzea handiagoa izaten den!



**LEIHOAK / KONTRALEIHOAK
SARRERAKO ATEAK / ITXITURAK
PERTSIANAK / MOSKITERAK**

Ordoki ind. ARIZKUN / T. 948 453 259 / F. 948 453 423
betikopvc@betikopvc.com / www.betikopvc.com



Mundua ikusi, dirua aurreztu eta natura zaintzea zure esku ere badago

BETIKOn LEIHOAK NEURTU, FABRIKATU eta INSTALATZEN DITUGU



PVC-zko sistema bakarra* Passive house ziurtagiriarekin BETIKOn daukagu.

6 kamara 82 mm-ko profila Merkatuko isolamendurik hoberena.

A+++

GOIZUETA

GIZARTEA → 2017KO UDAL AURREKONTUAK

Erantzun bikaina izan du etxebizitzari buruzko inkestak

309 etxebizitzatan utzi da galdetegia eta %86ak (266) erantzun du

%90,12rengana iritsi da (309 etxebizitza), eta horietatik %86ak erantzun dute (266).

Goizuetako etxebizitzari begira: 47k etxea erosi/alokatuko luketela erantzun dute eta 28 beraien etxe hutsa eskaintzara ateratzeko prest agertu dira (18 udalaren datu basean sartzeko prest daude).

Lokalei begira, 13k lokala behar dutela erantzun dute eta 8 eskaintzara ateratzeko prest agertu dira (5 uda-



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Euriari aurre egin zieten mozorroek eta zahagi dantzak

Inauterietako asteburua bikain joan zen eta astelehenean ikusgarria gelditu zen *Goizuta West* indiar, bakero, amish eta Mendebalde Urruneko hainbat pertsonaiek bixitatua, udaberriko giroan. Mozorroak ere baserri baserri gustura ibili ziren. Asteartean, ordea, euriari aurre egin behar izan zioten herriko itzulian eta zahagi dantza ere giro hezean dantzatu zuten. Halere, eguraldi txarrari aurpegi ona jarri eta bikain bukatu zituzten inauteriak.

letxearen datu basean sartzeko prest). Galde-tegiari erantzun dioten artean 233 herrian bizi dira eta horietatik 211 gustura gainera. Etorkizunean ere Goizuetan biziko lirakeke 186. Kanpoan bizi diren 38 lagunetatik (horieta-

tik 30 lanarengatik), berriaz, 15 etorkizunean herrian biziko lirakeke.

Goizuetan bizileku bezala hobetzeari begira, ekarpen asko jaso dira. Hauen artean, herrian lana sortzea, zerbitzuak hobetzea (batez ere arraindegia beharko li-

tzakeela aipatzen dute), etxebizitza prezioak jaistea eta gazteei laguntzak ematea eta errepide hobetzea.

Inkestaren emaitzak eta egoera aurkezteko Nafarroako Gobernuarekin eta Nasuvinsarekin bildu nahi du Udalak.

TTIPI-TTAPA

Etxebizitza Batzordearen eskutik etxebizitzari buzuko galdetegia banatu zen etxez etxe eta emaitzak bikainak izan dira. Galdetegiarekin, iritsi nahi zen

FLASH

Ekitaldien bilduma

2016 hasieran Ekitaldien bilduma jarri zuen martxan udalak. Helburua, Goizuetan antolatzen diren ekintzen berri jasotzen duen bilduma osatzea da, batez ere ikusteko zenbat ekintza eta zer ekintza antolatzen diren, zer jendeke parte hartzen duen.... Urtean zehar, eragile eta norbanakoek antolatutako ekintzen balorazioak jaso eta gero, urteko balorazioa egingo da eragile eta nahi duten herritar guztiekin martxoaren 10ean 18:30ean udaletxean. Hausnarketa honek, herriko eskaintza kulturala zein den eta nola dagoen aztertu eta aurrera begira eskaintza hobetzen lagunduko du.

Plazan dantzan ikastaroa

Martxoaren 11n hasita, Plazan dantzan ikastaroa izango da Umore Ona dantza taldearen eskutik. Lekunberritik etorriko da Mikel Lasarte eta berekin izango dira saioak plaza dantzak ikasteko. Mikel, Leitzan ere plaza dantzak irakasten ibilia da. Ikastaroa martxoaren 11n hasiko da eta hila-betean behin larunbat goizetan, 11:00etatik 13:00etara, izango dira saioak, udara bitarte. Edozeinentzat moduko ikastaroa izanen da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Zuhaitzaren Eguna Xalto ikastetxean

Otsailaren 15ean joan ziren Arano eta Goizuetako Xalto ikastetxeko ikasleak zuhaitzak landatzera. Duela urte batzuk egiten zen ohiturari jarraituz, Udalak aurten berriro jarri du martxan eskolatik irteera egitea zuhaitzak landatzera. Udalak eta eskolak elkarlanean antolatu duten proiektua da eta eguraldiak lagunduta egin zuten irteera eskolako ikasle eta irakasleek. Beilekura (kanterako bidea) joan ziren, bertan prestatu zuen eta udalak zuhaitzak landatzeko lekua. Udal langileak ere bertan izan ziren laguntzen. 200 landare eskatu dira eta asmoa, 3-4 urtetan baso bat egitea da.

GIZARTEA → AROZTEGIA... ETA GERO ZER? PLATAFORMAREN IRITZIA

Aroztegiko proiektuaren jarraipen batzordea «pozoindutakoa» dela uste du

«Inposaketari zilegitasuna emateko aurpegi zuritzea» dela dio Plataformak

TTIPI-TTAPA

Urtarrilaren 26ko osoko bilkuran erabaki zuen Udalak Aroztegiko proiektuaren jarraipena egiteko udal batzordea sortzea. Geroa Baik aurkeztu zuen proposamena eta Geroa Baiko bi zinegotziek ez ezik, UPNko laurek, Baztan Auzolanekoak eta Baztango Ezkerrako bi zinegotziek baiezko botoa eman zuten. Bada, Aroztegia eta gero zer? plataformaren irudiko, batzorde hori «pozoindutako batzordea» da eta Baztanen eratu behar den batzorde bakarra «Aroztegiko UGPSa gelditze»-ko eta herritarren borondatea betetzeko lan eginez duena da».

Batzorde hori udal ordezkariak, Nafarroako Gobernuordezkari batek, Palacio de Arozteguia S.L. enpresako ordezkariak eta Lekarozko alkatearekin osatzea proposatzen du Geroa Baik eta horren harira, plataformak honela dio: «lekaroztarren zein baztandarren borondateari murrin egin ondok, orain Lekarozko alkatearen presentzia eskatzen dute. Herriak egitea nahi ez duen proiektuaren garapenaren jarraipena egiteko hain



UTZITAKO ARGAZKIA

Pirinioetako behi arrazaren inguruko argazki lehiaketa

Behi-azienda piriniarraren lehiaketa-enkantearen XXX. edizioa dela eta, argazki lehiaketa antolatu dute lehen alfiz, baina horrez gain, bertze ekintza batzuk ere izanen direla iragarri dute. Helburu nagusia behi azienda honen presentzia gure artean ugaritzea, nabarmentzea eta indartzea dira. Lehiaketako argazkiak irailaren 23an eta 24an egingen den Behi Azienda Piriniarraren XXX. Lehiaketa-Enkante Nazioanalarren kartel eta eskuorriako erabiliko dituzte. Parte-hartzailerako bakoitzak hiru argazki aurkez ditzake gehienez ere, berak egindakoak eta argitaratu gabeak. Hala ere, horietako bakarra izan daiteke aukeratua. Horrez gain, behiaren eremu naturalean ateratakoak izan behar dute eta honela aurkeztu behar dira: koloreetan edo txuri-beltzean eta formatu bertikalean egindakoak izan beharko dute. Euskarri digitalean aurkeztu beharko dira eta uztailaren 21a baino lehen, eskura Baztango Udalaren bulegoetan edo e-postaz bulegaria1@baztan.eus helbidera idatzita. Epaimahaiak hiru argazki hoberenak sarituko ditu: lehendabiziko saria 400 eurokoa izanen da eta kartela eta liburuaren azala iragarriko ditu. Bigarren saria 200 eurokoa eta hirugarrena 100 eurokoa izanen dira eta bertze publizitate baliabideetan erabiliko dira.

zuzen ere. Lekarozko herritarren ordezkariari, herriaren suntsiketaren testigu konplizea eta isila izatea eskatzen dioten bitartean, zafratutako lurren jabe pribatuak zein herri lurren kudeatzeko eskumena duen Batzar Nagusiko ordezkariak gabeko batzordea eratu nahi dute». Plataformaren ustez, «berriz ere, nabarmen gelditu da Geroa Baik enpresaren bozera mailearen papera bete nahi duela, herritarren ordezkariari eta herritarren kontrako jazarpen

judiziala egin duten horiek kokatu nahi dituzte herritarren ordezkari paperean». Gisa berean, adierazi du Aroztegiko proiektua UGPS bidez onartu zela: «Udalari eta Batzar Nagusiei legez dagozkien eskumenak kentzeko eta herritarren borondatearen gainetik proiektu hau inposatzeko». Plataformak ohartzen dio, «ikusita Lekarozko zein Baztango herritarren gehiengoak eta tokiko erakunde instituzional demokratikoen proiektu honen kontrako irizpidea behin eta

berriz adierazi dutela, berriz ere, aurpegiak zuritzeko saiakera batean, ados jarri dira burutzen ari diren inposaketa eta bidegabekeriari zilegitasuna eman nahian».

Garbiñe Elizegiren kasuan auzitegiak emandako ebazpena ere «gogor» salatu du plataformak, «adierazpen askatasunaren eraso larria eta ama lurren suntsitu nahi duten eskrupulurik gabeko kapitalistak inpunitate osoarekin jokatzeko bidea ireki nahi duela» adieraziz.

AGROEKOLOGIA ESKOLA

Bertako haziaren eguna eta sagardo dastaketa

TTIPI-TTAPA

Baztango agroekologia eskola herritarren baitan, bi hitzordua izanen dira egunotan. Martxoaren 11n, Haziaren Eguna antolatu dute Hazitik Hozie eta Legate elkarteek, aurtengoa Lekarozkoan. Larunbatean 08:30ean, fruta-arbolaren neguko txerto ikastaroan parte hartzeko hitzordua izanen dute Lekarozko plazan. Ikastaroa Elutseko minditza komunalean egingen dute. 11:30ean hazien trukea eskolan. 12:30ean Jakoboa Errekondoren mintzaldia eskolan.

Martxoaren 17an, bertako sagardo dastaketa antolatu du Jo ala jo elkarteak. Arizkongo Gamioxarra dolarean, 19:00etan, merendu-afari giroan, Baztango sagardo dastaketa egingen dute, enologoaren laguntzarekin.



BAZTAN

GIZARTEA → MARTXOAREN 7, 14 ETA 21EAN EGINEN DITUZTE SAIOAK ARIZKUNENEAN

Zurumurruei aurre egiteko tailerrak hasi ditu Bidelagun-ek

Udalaren, Caja Navarra Fundazioaren eta SOS Arrazakeriaren laguntzarekin antolatutako saioak

TTIPI-TTAPA

Zurumurruei aurre egiteko formazio tailerra antolatu du Bidelagun elkarteak, Baztango Udalaren, Caja Navarra Fundazioaren eta SOS Arrazakeria erakundearen laguntzarekin. Gizarte Langileei, Osasun Etxeko Langileei, Administrazioan lan egiten duten langileei, Udal langileei, eskolotako hezitzaileei eta interesaturik dagoen edozeini zabalik dago.

Martxoaren 7, 14 eta 21ean dira saioak, astearte arratsaldeko 5:30etik 8:30era Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Izena emateko bidelagun@hotmail.com helbide elektronikora idatzi behar da, izen-abizen telefonoa eta maila utziz edo Bidelagun elkartera deituz: 948 581327. Erantzungailuan datuak utzi eta harremanetan jarriko dira antolatzaileak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Kalte handiak eragin ditu suak Erratzuko Oiara baserrian

Sute batek kalte handiak eragin zituen otsailaren 10ean, ortziraletik larunbaterako gauean, Erratzuko Azkarate auzoko Oiara baserrian. Isidro Irisarri Dufurrena, 52 urteko abeltzaina da baserriaren jabea. Suak teilatuaren hegala erabat hondatu zuen eta bertze erdian ere kalte handiak eragin zituen. Orain baserria ez dago erabiltzeko moduan eta erabateko moldaketa lanak behar ditu. Zorionez, suak ez zuen kalte personalik eragin, baina altzariak, arropa, telefonoa, notarioko eskriturak, agiriak eta dirua ere erre zuen. Kalteak ordaintzen laguntzeko elkartasun kanpaina ere abiatu da eta kontuak ireki dituzte Dantxarinek Rural Kutxan eta Dantxarinea, Elizondo eta Doneztebeko La Caixako bulegoetan.

SAIOAK

Martxoaren 7an egin da lehen saioa. Euskal Herriko Unibertsitateko Xabier Aierdi irakasleak *Kulturak eta identitateak*, *Aurreiritziak*, *estereotipoak* eta *zurumurruek* solasaldia eskaini du.

Martxoaren 14an, Bartzelonako Diputazioa eta Xarxa Antirumors-eko kolaboratzaileak den Raquel Morenok *Ba ote dut nik aurreiritzirik? Noizbait sinetsi al dut zurumurrurik? Eta zabaldu ote dut?* hitzaldia eskaini du.

Martxoaren 21ean, azkenik, *Zurumurruen kontrako erantzunak* hitzaldia eskaini du SOS Arrazakeriako Agustin Unzurrunzagak, eta Elizondon egin den inmigratioari buruzko zurumurruei nagusien azterketa azalduko du.

FLASH

Korrika kulturala

Euskara bidegurutzean Baztanen: erabili edo baztertu? hitzaldia eskaini du Kike Amunarrizek martxoaren 17an Arizkunenean, Baztandarren Bilzarra elkarteak antolatuta. Korrika Kulturaleko lehen ekitaldia izanen da. Martxoaren 18an Korrika besta ospatuko da eta ekitaldiak izanen dira egun osoan (bizikleta-marxta, bazkaria, bertso-poteoa, kontzertuak...). Martxoaren 25ean, Haurren Eguna, goizeko 10etan hasita Elizondoko pilotalekuan. Apirilaren 3an Korrikari ongi etorria arratsaldeko 4etan Izpegiko lepoan.

Bizi bat nola salbatu ikastaroak

Bizi bat nola salbatu RCP tailer-ikastaroak antolatu ditu Elizondoko Osasun Zentroak. Lehenbizikoa otsailaren 21ean egin zuten Oronozko Batzartok. Ondotik, martxoaren 7an Almandozen, martxoaren 15ean Lekarozen, martxoaren 21ean Azpilkuetan, martxoaren 28an Arraiozko eskolan, martxoaren 29an Gartzainen eta apirilaren 22an Arizkunenean eginen dituzte, denak 18:30etik 20:00etara. Interesatuak Elizondoko Osasun Zentroko 948 581833 telefonora deitu behar da.

'Zapatila gorridun mutikoa' antzerkia

Zapatila gorridun mutikoa antzezlanak ikusgai izanen da martxoaren 12an, igandean 19:00etan Iruritako Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean. Sarrera doan.

ola
SAGARDOTEGIA
www.olasagardotegia.eus
102 Meaka auzoa - 20304 IRUN - Tfnoa 943 623 130

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa

- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

TXOTX GARAJA IREKIA

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua

Santiago, 59 2C - ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 818

Ba al zenekien ?

- ...LEKAROZTAR eta BAZTANDAR batzuen lur pribatuak zein Baztandar guztien herri lurrak ere **ARozTEGIako** proiektu barnean daudela, lur hauen jabeen **BORONDATEAREN KONTRA** ?
- ...orain, beraiek nahi eta behar ez dituzten obrak egiteko **9000tik-200.000** euro arte ordaintzera behartzen dituztela ?
(Baztango Udalaren kasuan 100.000euro)
- ...eta ordaintzen ez badute beren belaiak eta gainerako ondareak **KENTZEN** ahal dizkietela ?
- ...proiektua **UGPS/PSISa** izendatu zela Baztango Udalari eta Baztango Batzar Nagusiari legez dagozkien eskumenak kenduz ?
- ...nahiz eta Lekarozen zein Baztanen egindako **galdeketa** guztietan herritarrak proiektuaren kontra agertu, interes orokorra erabili dutela **UGPS/PSISa** onartzeko ?
- ...Lekarozko zein Baztango egitura turistiko, sozial, politiko zein kulturean **KALTE** larriak ekarriko dituela ?
- ...proiektu honen bultzatzaileen artean, **SICAVen** jabe direnak, diru publikotik milaka milioi jaso dituzten erreskatatutako bankuak direnak eta estatu mailan urbanizazio fantasmak egin eta **espekulatzegatik** aipatuak izan direnak daudela ?
- ...Aroztegiako lur ez urbanizagarri ziren 45 hektareen birkalifikazioarekin, egun batetik bertzera gutxi gora behera luraren balioa **530.000 EUROTİK 36.000.000 EUROTARA** pasatu dela ?
- ...gaur egungo Aroztegiako proiektua defendatzen duenak, hau dena onartzen eta babesten ari dela (**UPNPPSOE, GeroaBai, Baztan Auzolanean,...**) ?

**Baztango aferak
Baztanen erabaki !**



BAZTAN

OSPAKIZUNAK → MARTXOAREN 18AN

Haurren minbiziaren aurkako zumba jaialdia Elizondon

ADANO
elkartearen alde
udal
pilotalekuan

TTIPI-TTAPA

Nafarroan minbiziaren hurrei laguntza ematen dien ADANO elkartearen aldeko zumba ekitaldi benefikoa egiten dute martxoaren 18an, larunbat arratsaldeko 5etan Elizondoko frontoian, Jaione eta Joneren eskutik. Haurren minbiziaren aurkako zumba ekitaldiaz gain, funkyko ikasleek show-a ere eskainiko dute eta zumbako 10 kamiseta zozketatuko dituzte. Zumba fitness Zin, Elizondoko herria eta Baztango Udalaren laguntzaz antolatutako ekitaldira sartzeko 6 euro ordaindu beharko dute helduek eta 3 euro haurrek.

'Bizentaren lumak' larunbatean Elizondon

Martxoaren 11n, Bizentaren lumak solasjolasaren egina dute 11:00 -

Ba al zenekien

